

## BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

### 3536

*AGINDUA, 2015eko uztailaren 27koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena. Honen bidez, 2015-2016 ikasturtean doktoreak ez diren ikertzaileak prestatzeko Doktoratu Aurreko Programako laguntza berriak eta laguntza-berritzeak erregulatzen dira, eta laguntza horien deialdia egiten da.*

Ikertzailearen Europako Gutunean (EEE/2005/251/CE), ikertzaileak definitzen dira jakintza, ezagutza, produktu, prozesu, metodo eta teknika berriak sortzen diharduten profesional multzo modura. Kalifikazioa gorabehera, definizio horretan biltzen dira karrerako edozein etapatan ikerkuntzan eta garapenean ari diren pertsona guztiak. Horrela, bada, Eusko Jaurlaritzak arlo horretan daraman zientzia-politikako beste urrats bat da ikerketa-jarduerak sustatzea, prestakuntzaldiko hasierako etapetan ikertzaileak kontratatuz. Doktoregoa, berriz, ikerkuntza-karreran sartzeko atea da, eta zientziako edozein arlotan ikerketa erabat garatzera bideratu behar du.

Doktoreak ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko programa hau ikerkuntzako giza baliabideak sustatzeko politikan sartzten da, hain zuzen ere Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate Planean (2015-2018koan) eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza 2015 Planean; ildo horretatik, programaren helburua da lanbide-jarduera ikerkuntzara bideratu nahi duten goi-mailako tituludunen berriazko prestakuntza bultzatzea. Ekintza hori garrantzi handikoa da; izan ere, Euskadik ahalegin handiak egin behar ditu ikerketarako giza baliabideak ugaltzeko, Europako beste herrialde batzuetan ugaltzeko adina. Halaber, errelebo-belaunaldi baten prestakuntza sustatu behar du zientzia- eta teknologia-gaietan. Hori guztia Ikertzailearen Gutun Europarrari eta Ikertzaileak Kontratatzeko Jokabide Kodeari (EEE/2005/251/CE) buruzko Europako Erkidegoko Batzordearen Gomendioaren arabera.

Ikertzaileen lan-izaerako lan-kontratu motak eta aplikatu daitezkeen araubide juridikoa definitzen dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 20. artikuluan; 21. artikuluan, berriz, doktoratu aurreko kontratuaren modalitatean egindako kontratuen egoera juridikoa, kontratuen betekizunak, ordainketa, dedikazioa eta aipatutako kontratuaren iraupena eta abar taxutzen dira.

Eskaera egiteko, inskripzio-orria bete behar da (Saileko egoitza elektronikoen bitartez esku-ragarri), Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuko 28.1 artikulua aplikatuz; izan ere, Dekretu horrek ezartzen duenez, derrigorrean modu elektronikoen bitartez komunikatu behar da, baldin eta interesdunak pertsona juridikoak edo pertsona fisikoen kolektiboak badira eta pertsona horien gaitasun ekonomikoa edo teknikoa, lanbide-jarduera edo egiaztatutako bestelako arazoak direla-eta, pertsona horiek bermatuta badaukate bai sarbidea eta beharrezko bitarteko teknologikoak.

Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuak –EAEko Administrazio Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak– Sail honi eskumenak eman dizkio zientzia-alorreko politikan eta funtsezko ikerketaren eta ikerketa aplikatuaren sustapenaren eta koordinazioaren arloan.

Deialdi hau ebazteko, kontuan izango dira herri-administrazioen diru-laguntzak emateko jarduera arautzen duten publikotasun-, lehia- eta objektibotasun-printzipioak, betiere EAEko

Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginari jarraikiz (arazoaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartu zuen); era berean, erabilgarri dauden baliabide ekonomikoak aplikatuko dira, agindu honetan ezarritako irizpideei jarraikiz.

Horrenbestez, abenduaren 23ko 5/2014 Legea, 2015eko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena, onetsi denez, honako hau

EBAZTEN DUT:

## I. KAPITULUA

### PROGRAMAREN XEDEA ETA BALDINTZAK

#### 1. ATALA

##### XEDEA, ZENTROAK ETA FINANTZAKETA

###### 1. artikulua.– Helburua eta definizioak.

1.– Agindu honen xedea da oinarri arautzaileak ezartzea eta 2015-2016 ikasturterako laguntzak iragartzea hau da, doktoreak ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko programaren laguntzak (doktoreak ez diren ikertzaileek doktorego-tesia egitera bideratutako ikerketa finantzatzeko direnak). Deialdiaren bidez, laguntza Berriak emango dira, eta 2014-2015 ikasturterako emandakoak berrituko.

2.– Programaren helburua da ikertzaileen prestakuntza sustatzea, doktorego-programa baten bidez, doktore-titulua lor dezaten eta kalitatezko zientzia-ikerketari lotutako gaitasunak eta trebetasunak eskura ditzaten.

3.– Doktore titulua lortzeak esan nahi du laguntzaren xedea amaitu dela; beraz, horren gaineko eskubideak ere amaitu egingo dira. Kasu horretan, laguntza amaitzeak ondorio administratibo eta ekonomikoak izango ditu, doktorego-tesia defendatu eta hurrengo hilabeteko lehenengo egunetik aurrera.

###### 2. artikulua.– Ezarpen-zentroak.

1.– Ezarpen-zentroak izango dira irabazi-asmorik gabeko unibertsitate edo ikerketa-erakunde publiko edo pribatuak; I+Gko ahalmen eta jarduera izango dute, eta egoitza soziala izango dute deitutako modalitate bakoitzean zehaztutakoarekin bat datorren lurralderen batean.

2.– Laguntzaren onuradun direnek eta ezarpen-zentroa atzerrian dutenek doktoratu aurreko kontratua sinatu beharko dute Zientziaren Euskal Fundazioarekin (aurrerantzean, Ikerbasque). Fundazio horrek zentro kontratatzaile gisa jardungo du kasu hauetan.

###### 3. artikulua.– Jarduteko ildoak, modalitateak eta ezagutzaren arloak.

1.– Programan honako jarduteko ildo hauek biltzen dira:

a) Laguntza Berrien linea; laguntza horien bitartez finantzatuko dira prestakuntza-aldian diren ikertzaileen kontratuak.

b) Laguntza-berritzeen linea; 2014-2015 aldian emandako laguntzak berrituko dira linea horren bitartez.

c) Doktoregoa 2016. urtean lortzeagatik Sarien linea.

2.– a) eta b) idatzi-zatietan deskribatutako lineek honako modalitate hauek biltzen dituzte:

Ezarpen-zentroaren kokapena	Laguntza Berrien linea	Laguntza-berritzeen linea		
		1. berritzea	2. berritzea	3. berritzea
EAE	A modalitatea	A modalitatea	A modalitatea	A modalitatea
Estatuko gainerako erkidegoak	B modalitatea	B modalitatea	B modalitatea	B modalitatea
Atzerria	I modalitatea	I modalitatea	C modalitatea	C modalitatea

3.– Agindu honetako I. eranskinean daude zerrendatuta laguntza Berriak eskatzeko aukera ematen duten ezagutzaren arloak.

Lehiakide bakoitzak arlo bakar batean aurkeztu beharko du eskabidea, eta arlo horretan aztertuko da eskabidea.

Zientzia Politikarako Zuzendaritzak, interesdunari hala jakinarazi ondoren, aukeratutako arloa aldatu ahal izango du, betiere, hala komeni bada eskabidearen ezaugarriak direla-eta, edo kasuan kasuko berriazko aholku-batzordeak horrelakorik gomendatzen badu.

4. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Programaren zenbateko osoa, deialdi honetan, 8.302.130 eurokoa da, aurrekontu-ekitalditan eta jarduera-ildotan banatuta taula honen arabera

Lineak	2015eko ekitaldia (€)	2016ko ekitaldia (€)	GUZTIRA (€)
Laguntza Berriak	207.152	1.864.363	2.071.515
Berritzeak	600.562	5.405.053	6.005.615
Doktore-sariak		225.000	225.000
Guztira	807.714	7.494.416	8.302.130

2.– Laguntza Berrien lineari esleitutako zenbatekoa handitzeko aukera egongo da, betiere laguntzak berritzeko linea gauzatu ondoren gerta litezkeen aurrekontu agortu gabeen arabera; horretarako, eskaera egin beharko du hautapen-batzordeak.

3.– Deialdi honi esleitutako zenbateko orokorra ere handitu ahal izango da, laguntza horiek ebatzi aurretik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren beste laguntza-programa batzuk gauzatu ondoren aurrekonturik geratzen bada agortu gabe. Horren berri Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeak emango du ebazpen baten bitartez.

4.– Doktoregoa lortzeagatik Sarien linea aurretiaz izapidetzeko prozedurari lotuta egongo da, Euskal Autonomia Erkidegoko 2016. urteko Aurrekontu Orokorraren kargura; horrenbestez, saria emango da aurrekontu horretan kreditu egokia eta behar adinakoa baldin badago. Laguntzetarako gordetako kreditua agortuz gero, egoera horren berri emateko, Unibertsitate eta Ikerketako sail-

buruordearen administrazio-ebazpen bat argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (aurrerantzean, EHAA), eta bertan jasoko da zein egunetan agortu den kreditua. Ez da onartuko egun horretatik aurrera jasotako eskabiderik.

## 2. ATALA

### ONURADUNAK, EZAUGARRIAK, ZUZENDARITZA ETA TESI-PROIEKTUA

#### 5. artikulua.– Onuradunak.

Laguntza eskatu duten eta tesi-proiektua egingo duten pertsona fisikoak onuradunak izango dira.

#### 6. artikulua.– Ezaugarriak.

##### 1.– Kontratua.

a) A, B eta I modalitateetan, doktoratu aurreko kontratuaren ezaugarriak izango dituzte laguntzek, horiek baliatzen diren aldi osoan. Kontratuaren xedea izango da proiektu zehatz eta berrietan ikerketa-lanak egitea, lanaldi osoko erregimenean.

A eta B modalitateetan, kontratua idazki bidez egingo da ezarpen-zentroaren (enplegu-emaile gisa) eta prestatzen den ari den ikertzailearen artean (langile gisa).

I modalitatean, kontratua idazki bidez egingo da Ikerbasque-ren (enplegu-emaile gisa) eta prestakuntza-aldian den ikertzailearen artean (langile gisa).

Kontratu horiek Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Legearen 21. artikuluan eta indarreko lan-araudian ezarritakoaren babesean egingo dira.

Enplegu-emailearen eta prestakuntza-aldian den ikertzailearen arteko harremana Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Legean eta Langileen Estatutuan ezarritakotik ondorioztatzen dena izango da.

b) C modalitatean, kontraturik gabeko bekaren ezaugarria izango du onuradunentzako laguntzak, hura baliatzen den aldi osoan.

2.– Iraupena.– Bekak eta kontratuak urtebete iraungo dute, laguntza hasten denetik zenbatzen hasita, agindu honen 10. artikuluan ezarritakoari jarraiki; halere, laguntza berrituz gero, urtebeteko beste hiru luzapen izan ahal izango ditu, agindu honen IV. kapituluan xedatutakoaren arabera.

Laguntza baliatzeko 48 hilabete horiek elkarren segidakoak izango dira.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Legean ezarritakoaren arabera, laguntza 48 hilabetean emango ahal izango da gehienez. Komenigarria da gogoratzea, ordea, doktoregoko irakaskuntza ofizialak arautzen dituen urtarrilaren 28ko 99/2011 Errege Dekretuaren 3. artikuluan 2. puntuan ezartzen dela doktorego-ikasketen iraupena hiru urtekoa izango dela gehienez ere, lanaldi osoko dedikazioan, doktoregaia programan onartzen denetik zenbatzen hasita doktorego-tesia aurkezten den arte. Hiru urteko epea igaro ondoren ez bada aurkezten tesia aurkezteko eskabidea, programaren ardura duen batzordeak baimena eman ahal izango du urte betez luzatzeko.

Hortaz, laguntzen hirugarren berritzea honako alderdi hauek baldintzatuko dute: alde batetik, Agindu honetako IV. kapituluan ezarritakoa betetzeak, eta, bestetik, laguntzaren onuradunak tesia inskribatuta daukan doktorego-programaren ardura duen Batzorde Akademikoak luzapen hori gauzatzeko baimena emateak.

Ikertzaileen kontratuaren iraupena eten egingo da, egoera hauetakoren bat jazoz gero: aldi baterako ezintasuna, haurdunaldiko arriskua, amatasuna, adopzioa edo harrera, edoskitzealdiko arriskua edota aitatasuna gertatzean. Kasu horretan, etendako denbora berreskuratu ahal izango da, interesdunak hala eskatzen bada, laguntza amaitzen denean, betiere laguntzari uko egin ez badio eta errebotatu ez bada. Eskaera hori Zientzia Politikarako Zuzendaritzak baimendu beharko du, baldin eta 60 eguneko alditan berreskuratzen bada eta aurrekontu-baliabide nahikoak badaude.

### 3.– Zuzkidura.

a) Kontratua duten modalitateetan (A, B eta I), laguntza hori erabiliko da zentro enplegu-emailak ordainsari gordina eta enpresa-kuota ikertzaileen Gizarte Segurantzari ordaintzeko.

Enplegu-emaleek eta enplegatuek honako zuzkidura hauek jasoko dituzte 2015-2016 ikasturtean:

Modalitatea	Laguntza Berriak (€)		Berritzeak (€)					
			1. berritzea		2. berritzea		3. berritzea	
	Enplegatzailea	Langilea	Enplegatzailea	Langilea	Enplegatzailea	Langilea	Enplegatzailea	Langilea
A	18.185,16	14.545,80	18.185,16	14.545,80	22.731,46	18.182,25	22.731,46	18.182,25
B	18.185,16	14.545,80	18.185,16	14.545,80	22.731,46	18.182,25	22.731,46	18.182,25
I	22.731,46	18.182,25	22.731,46	18.182,25	22.731,46	18.182,25	22.731,46	18.182,25

Enplegatuak jasotzen dituen zenbatekoak hamabi edo hamalau hilekotan banatuko dira, zentro enplegu-emalearen araudiak ezartzen duenaren arabera.

b) C modalitatean, laguntzaren zenbatekoa urteko 17.025 euro garbitik 22.489 euro garbira artekoa izango da, aplikazio-zentroa dagoen herrialdearen arabera. Behin betiko zenbatekoa helmugako herrialde bakoitzaren erosteko ahalmenaren parekotasuna aplikatuz ezarriko da, barne-produktu gordina ebaluatzeko Nazioarteko Diru Funtsak argitaratzen duen egunean esku-ragarri dauden azken datuak kontuan hartuta.

### c) Doktorego-sariak

Doktorego-sariak	Noiz eskuratua:			
	Bekaren 1. urtea	Bekaren 2. urtea	Bekaren 3. urtea	Bekaren 4. urtea
Nazioartekoa	6.000 €	6.000 €	6.000 €	4.500 €
Ez nazioartekoa	4.500 €	4.500 €	4.500 €	3.000 €

4.– Asegurua.– Onuradunei dagokien Gizarte Segurantzaren estaldura bazter utzi gabe, laguntzek erantzukizun zibileko eta istripuen aseguru bat jasoko dute, eta EAEko Administrazio orokorrak kudeatuko du. Horrez gain, I eta C modalitateetako ikertzaileak bidaiako asistentzia-asegurua onuradun izango dira.

5.– Bidaia-gastuak.– I eta C modalitateen onuradunak diren ikertzaileentzat osagarri bat ezarriko da lekualdatutako zentrori joan-etorriko bidaia bat finantzatzeko urtean. Bidaia horren zenbatekoa honako taula hau kontuan hartuko da ezarriko da:

Irteten den lekutik destinorainoko distantzia	1.000 km arte	1.001-2.500 km	2.501-11.000 km	11000 km baino gehiago:
Bidaia-gastuetarako laguntza	300 euro	600 euro	1.000 euro	1.200 euro

Agindu honen ondorioetarako, eskatzailea EAEn erroldatuta dagoen probintziako hiriburua hartuko da jatorri-hiritzat.

6.– Ordaintzeko era.– Laguntzaren ordainketa zentru enplegu emaileei egingo zaie eta zatikatu izango da, laguntzaren % 10 laguntza eman eta onuradunak onartu ondoren ordainduko baita. Eta gainerakoa % 30eko hiru ordainketatan; ordainketa bakoitza 2016ko otsailean, maiatzean eta irailean egingo da.

Kontratua duten modalitateetan, bigarren ordainketa egiteko, ezinbestekoa izango da kontratuaren kopia bat –edo, hala badagokio, kontratuaren luzapenen kopia bat– aurkeztea Zientzia Politikarako Zuzendaritzan.

Zentro enplegu-emaileei aurretik emandako funtsekin sortu ahal izango liratekeen finantza-errendimenduek ez dute emandako laguntzaren zenbatekoa handiagotuko.

Prestakuntza-aldian diren ikertzaileei egindako ordainketak direla-eta, ezarpen-zentroek eta Ikerbasquek kasuan kasuko konturako atxikipenak eta diru-sarrerak aplikatuko dituzte.

#### 7. artikulua.– Doktorego-tesien proiektuak zuzentzea.

1.– Doktorego-tesiaren proiektua zuzendu ahal izango du laguntzaren onuraduna atxikita dagoen unibertsitatearekin edo ikerketa-zentroarekin lotura iraunkorra izan eta zerbitzu aktiboan dagoen doktore batek.

Ondorio horietarako, ulertuko da iraunkorra dela Ikerbasque-k «Research Professor» kategorian kontratatutako ikertzaileen eta haiek atxikita dauden erakundeen arteko lotura.

2.– Tesia zuzentzen duen pertsonak kontratu-lotura baldin badauka ezarpen-zentroarekin, proiektuak bezainbeste edo gehiago iraun beharko du kontratu horrek. Proiektuaren iraupena gehienez ere 48 hilekoa izango dela jotzen da. Proiektua zuzentzen duen pertsonak ez badu baldintza hori betetzen, laguntzaren iraupen osoa betetzen duen zuzendarikide batek lagundu beharko dio nahitaez.

3.– Eskabide bakoitzean, tesi-proiektua zuzenduko duten bi pertsona agertuko dira, gehienez ere, zuzendari eta zuzendarikide modura; eskubide eta betebeharrak izango dituzte bi pertsona horiek.

Zuzendarikide bat baldin badago, hark ere sinatu beharko ditu dokumentu guztiak, alegia, deialdi honen arabera proiektuaren zuzendariak sinatu behar dituen agiri guztiak.

4.– Doktorego-tesiaren proiektuaren zuzendariak ezingo du eskabide batean baino gehiagotan azaldu deialdi honetako modalitateetan.

#### 8. artikulua.– Proiektua.

1.– Prestakuntza-aldian den ikertzaileak 48 hilabeteko epea izango du arduraldi osoz ikerketa-lanak egiteko, eta doktorego-tesiko proiektua gauzatu eta defendatzeko.

2.– Agindu honetan aurreikusitako laguntzen xede diren proiektuek printzipio hauek bete beharko dituzte:

a) Honako adierazpen eta hitzarmen hauetan ezarritako oinarritzko printzipioak: Helsinkiko Adierazpena (Munduko Medikuntza Elkartea), Giza eskubideei eta biomedikuntzari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena, Giza genomari eta giza eskubideei buruzko UNESCOren Adierazpen Unibertsala, eta ikerkuntza biomedikoari, datu pertsonalen babesari eta bioetikari dagokienez Espainiako legedian ezarritako baldintzak.

b) Gizakiekin ikerketak egin edo giza jatorriko laginak erabiltzea dakarten proiektuek uztailaren 3ko 14/2007 Legean –Ikerkuntza Biomedikoari buruzkoan– araututakoa bete behar dute. Era berean, lege horri lotuta egongo dira: gizakien enbrioietan jatorri duten zelulak eta ehunak edota horietatik eratorritako zelula-lerroak erabiltzea espezifikoki eskatzen duten ikerkuntza-proiektuak.

c) Saiakuntza klinikoak xede dituzten proiektuek otsailaren 6ko 223/2004 Errege Dekretuan ezarritakoa bete behar dute.

d) Animaliekin esperimentuak egitea dakarten proiektuek indarrean den lege-araubidean ezarritakoa bete beharko dute, eta bereziki urriaren 10eko 1201/2005 Errege Dekretuan –esperimentuak egiteko eta bestelako helburu zientifikoetarako erabiltzen diren animalien babesari buruzkoan– ezarritakoa.

e) Genetika aldatuta daukaten organismoak erabiltzea dakarten proiektuetan bete beharko dira, batetik, Genetika aldatuta daukaten organismoak bakarturik erabiltzeari, borondatez askatzeari eta merkaturatzeari buruzko apirilaren 25eko 9/2003 Legea, eta, bestetik, lege hori garatzen duen araudi orokorra onesten duen urtarrilaren 30eko 178/2004 Errege Dekretua.

f) Agente biologikoak erabiltzea dakarten proiektuak, berriz, azaroaren 8ko 31/1995 Legean –Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoan– eta hori garatzen duten errege-dekretuetan ezarritakoari egokitu beharko dira, agente biologikoekin kontaktuan izatearen ondoriozko arriskuei dagokienez.

g) Azkenik, material genetikoa hartzea edo trukitzea xede duten proiektuek honako hauek bete beharko dituzte: Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmena, Elikadurarako eta Nekazaritzarako Baliabide Fitogenetikoei buruzko Nazioarteko Ituna, eta uztailaren 26ko 30/2006 Legea, Mintegiko Haziei eta Baliabide Filogenetikoei buruzkoa.

### 3. ATALA

#### ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

9. artikulua.– Ikertzaile onuradunen eskubideak.

1.– Ikerketa-proiektua gauzatzeko behar duten laguntza jasotzea ezarpen-zentrotik, zentro horrek ahal duen neurrian.

2.– Departamentu, institutu eta erakundeetan sartuta egotea eta horietan parte hartzea, ezarpen-zentroaren estatutuetan onartzen zaion moduan.

3.– Ezarpen-zentroko estatutuak ezartzen dizkion opor-erregimena, lizentziak eta baimenak kontuan hartzea.

4.– Beste ezarpen-zentro batzuetan egonaldi laburrak egiteko, kontuan hartuko da Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren urteroko agindua; izan ere, Hezkuntza, Hizkuntza Politika

eta Kultura Sailak finantzaturako ikertzaileen prestakuntzarako programako beken ezarpen-zentroetatik kanpo egonaldi laburrak egiteko laguntzen deialdia egiten da agindu horren bidez. Beste administrazio edota ezarpen-zentro batzuek ematen dituzten antzeko aginduak ere hartuko dira kontuan.

5.– Norberaren ekarpenarekin bat etorritik, ikerketako prestakuntza-jardueratik eratorritako jabetza intelektualaren eskubideak baliatzea, Jabetza Intelektualaren Legearen Testu bateginak –apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak onartutakoak– ezarritakoari jarraiki. Eskubide horiek ez dute menpekotasunik izango egindako ikerketak sorrarazi ditzakeen beste eskubide batzuekin, eta horiekin osagarri eta metagarri izango dira. Horrek ez du eraginik izango lan kolektibotik eratorritako baldintzatzaileetan, prestatze-aldian den ikertzailea ikerketa-proiektu kolektibo batean parte hartzen ari denean edo horri lotuta dagoenean.

6.– Industria-jabetzaren gaineko eskubideei dagokionez, deialdi bakoitzak xedatutakoa hartuko da kontuan, patenteei buruzko martxoaren 20ko 11/1986 Legearen esparruan. Horrez gain, urtarrilaren 18ko 55/2002 Errege Dekretuak –ikerkuntza-erakunde publikoetan egindako asmaketak ustiatzeari eta lagatzeari buruzkoak– xedatutakoa ere hartuko da kontuan, hala dagokionean. Aipaturako eskubide horiek ez dute, inola ere, soldata-izaera izango.

7.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Legeak 14. artikuluan A, B eta I modalitateetako ikertzaileentzat onartutako guztiak.

8.– Ezarpen-zentroak aitortu, eta deialdi honetan ezarritakoarekin bat datozen eskubide guztiak.

10. artikulua.– Ikertzaile onuradunen betebeharrak.

1.– Jarraian adierazten diren egunetan sartzea ezarpen-zentroan:

a) Laguntza berri baten onuraduna 2016ko urtarrilean hasiko da lanean. 2016ko otsailaren 1a baino lehen hasi beharko du aldiak, bai ondorio ekonomikoetarako, bai denbora zenbatzeko, baita Gizarte Segurantzaren alta emateko ere.

Ikertzaile onuraduna 2016ko otsailaren 1a baino geroago hasten bada lanean, emandako laguntza baliogabetu egingo da Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpen bidez, lanean hasteko epea luzatzeko Zientzia Politikarako Zuzendaritzari baimena eskatu eta hark horretarako baimena eman duen kasuetan izan ezik. Baimendutako geroratze-aldiak berreskurazekin izango dira.

b) Laguntza berritzea lortzen duten ikertzaileek prestakuntza-jarduerarekin jarraitu beharko dute, etenaldirik egin gabe, eta dagokien ezarpen-zentroaren lan-egutegia bete beharko dute.

c) Onuradun berriak eta berriak ezarpen-zentroan sartu direla egiaztatu beharko da, zentroko atxikipen-departamentuaren zuzendariak eta ikerketa-proiektuaren zuzendariak sinatutako agiririk bidez. Dokumentuak atxikipenerako aurreikusitako data berbera izan beharko du. Idazki hori 2016ko otsailaren 15a baino lehenago igorri beharko da Zientzia Politikarako Zuzendaritzara.

2.– Ikerketa-jarduera dedikazio eskusiboko erregimenean gauzatu beharko da, bazter utzi gabe agindu honetako 14. artikuluan ezarritakoa.

3.– Laguntza baliatzeko epea amaitu eta hurrengo hilabetearen barruan, gehienez ere 10 orrialdeko txostena aurkeztea, egindako ikerketa-jarduera guztiei eta haien emaitzei buruz. Zuzendaritza bermea izan beharko du txostenak.

4.– Laguntzari uko eginez gero, Zientzia Politikarako Zuzendaritzari eta Ezarpen Zentroari jakinaraztea, 13. artikuluan xedatutako baldintzei jarraiki.



5.– Doktore-titulua lortuz gero, Zientzia Politikarako Zuzendaritzari eta Ezarpen Zentroari jakinaraztea, gehienez ere egutegiko 10 eguneko epean, titulua lortzen den egunetik aurrera.

6.– Doktorego-araudietan aurreikusitako epeetan lortzea doktoregoa. Lortu ezean, itzultzeko prozedura hasiko da.

7.– Laguntza baliatu bitartean egiten diren argitalpen guztietan eta doktorego-tesian azaltzea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak doktoreak ez diren ikertzaileak prestatzeko duen doktoratu aurreko programaren onuradun dela.

8.– Aprobetxamenduz gauzatzea ikerketa-proiektuko lan-planean eta doktorego-programan aurreikusitako jarduerak.

9.– Ezarpen-zentro bera mantentzea laguntzak irauten duen artean, eta bertan egotea hala dagokionean. Ez da baimenik emango ezarpen-zentroz aldatzeko. Ikertzeko premiak direla-eta, ikertzaileak ezarpen-zentrotik irten behar badu bi astetan baino gehiagotan, Zientzia Politikarako Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio. Aurreikusitako irteera-data baino hamar egun lehenago gutxienez egingo da eskaera bide telematikoz, Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoaren bitartez, [https://www.euskadi.eus/zerbitzu\\_elkartzea/2015/predoc/y22-izapide/eu\\_helbide\\_elektronikoan](https://www.euskadi.eus/zerbitzu_elkartzea/2015/predoc/y22-izapide/eu_helbide_elektronikoan), idatzi bat aurkeztuta behar bezala arrazoituta eta departamentuaren zuzendariak, proiektuarenak eta prestakuntza-aldian diren ikertzaileek izenpetuta. Zientzia Politikarako Zuzendaritzari jakinarazi beharko zaizkio ikerketa-premiekin eragindako irteerak, astebete baino denbora gutxiagorako direnean eta Espainiara egiten direnean.

10.– Ezarpen-zentroaren funtzionamenduko, segurtasuneko eta lan-osasuneko arauak onartzea, ezagutzea eta betetzea.

11.– Erakunde batzuentzat diharduela kontuan hartuta, ikerketa-jarduera gauzatzeko orduan erakunde horien izenak erabiltzea, barne-araudien eta erakundeek sinatutako akordio eta hitzarmenen arabera.

12.– Zientzia hedatzeko kanpainetan parte hartzea, ezarpen-zentroko komunikazio-politikaren esparruan.

13.– Doktorego-tesia egiteko proiektuaren zuzendari bera edukitzea, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak aldatzeko esanbidezko baimena ematen duenean izan ezik.

Proiektuaren zuzendaria aldatzeko baimena modu telematikoan eskatuko zaio Zientzia Politikarako Zuzendaritzari, Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoaren bitartez, [https://www.euskadi.eus/zerbitzu\\_elkartzea/2015/predoc/y22-izapide/eu\\_helbide\\_elektronikoan](https://www.euskadi.eus/zerbitzu_elkartzea/2015/predoc/y22-izapide/eu_helbide_elektronikoan), eta arrazoitutako nahiz zuzendari-kargua uztera doan pertsonak eta prestakuntza-aldian den ikertzaileek izenpetutako idatzi bat aurkeztuta, zuzendari-kargua hartuko duen pertsonaren onarpen-gutunarekin eta curriculum vitaearekin batera bidali beharko dena.

Nolanahi ere, baimentzen diren aldaketen ondorioz ez dira aldatuko laguntza ematea eragin zuten kalifikazioak.

14.– Zientzia-alorreko prestakuntza eta esperientzia-trukea sustatzeko politikaren esparruan Zientzia Politikarako Zuzendaritzak antolatutako jardueretan parte hartzea.

15.– Diru-laguntza jasotako egoeraren xedea edo izaera asko aldatzen duen edozein gora-beheraren berri ematea; era berean, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari laguntzea jarduera horien egiaztapen-, inspektzio-, jarraipen- eta kontrol-prozeduretan.

16.– Kontrol Ekonomikorako Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak diru-laguntzen destinoa fiskalizatzeko lanetan eskatzen dieten informazio guztia aurkeztu beharko dute.

17.– Edonola ere, diru-zenbatekoak jasotzeko eta laguntza berritzeko, prestakuntza-aldian den ikertzaileak bere betebeharrak bete beharko ditu. Betebehar horiek ez badira betetzen, laguntza ezeztatzeko dagokion prozedura bideratu ahal izango da, baita, hala badagokio, laguntza itzultzeko prozedura ere.

18.– Era berean, agindu honetako laguntzen onuradunei ez zaie laguntzarik emango, ezta emandakoa ordainduko ere, baldin eta EAeko Administrazio Orokorrek eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan itzultze- edo zehatze-prozeduraren bat bukatu gabe eta izapidetzen badute.

11. artikulua.– Ezarpen-zentroaren eta erakunde kontratatzaileen betebeharrak.

1.– Ezarpen-zentroaren eta prestakuntza-aldian den doktoratu aurreko ikertzailearen arteko lan-harremanetik sortutako betebeharren kalterik gabe, honako eginbehar hauek ditu ezarpen-zentroak:

a) Laguntzaren onuradun den ikertzaileari lan-kontratua egitea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Legean helburu horretarako ezarritakoaren arabera, betiere indarrean dagoen lan-arloko legeriari jarraiki, eta Agindu honetan adierazten diren iraupen, ordainsari eta gainerako eskakizunak kontuan hartuta.

b) Onuradunekin sinatutako kontratuen kopia igortzea Zientzia Politikarako Zuzendaritzara sinatzen den egunetik zenbatzen hasita egutegiko 21 eguneko gehieneko epean.

c) Zientzia Politikarako Zuzendaritzari jakinaraztea, baldin eta laguntza emateko hasierako egoera aldatzen bada, egoera hori eten edo aldatzen bada, edo bateraezintasuna dakarren beste edozein kausa sortuz gero; gainerako gorabeheren berri ere eman beharko da, baldin eta laguntzaren xedea normaltasunez betetzea eragotz badezakete. Gehienez ere, egutegiko 21 eguneko epean eman beharko da gorabehera horien berri, gertatzen diren egunetik aurrera.

d) Onuradunei behar duten laguntza ematea, eta beren jarduera ongi gauzatzeko behar dituzten bitartekoak, tresnak edo ekipoak erabiltzeko aukera ematea.

e) Programa behar bezala garatzen dela zaintzea; onuradunari ezin zaio eskatu bere ikerketaren garapenarekin lotuta ez dagoen beste jarduerarik egitea.

f) Prestakuntza-aldian den ikertzaileari aukera ematea, ikertzen ari den departamentuetan, institutuetan eta erakunde publiko edo pribatuetan integratzeko.

g) Laguntza-programa honen barruan ezarpen-zentroaren eta ikertzailearen artean egindako kontratuek adierazi beharko dute Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko finantza-laguntza dutela ikertzaileak prestatzeko doktoratu aurreko programaren bitartez.

h) Kontrol Ekonomikorako Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eskatutako informazio guztia ematea, laguntzen xedearen fiskalizazio-eginkizunak betetze aldera.

i) Ezarpen-zentroak 2017ko lehen hiruhilekoan justifikatu beharko du zertan erabili dituen agindu honetan araututako laguntzengatik jasotako funtsak. Helburua da zentro horiei ikertzaileen ordainsari gordinetarako ordaindutako zenbatekoen eta, agindu honetan jasotako egoera guztiak aplikatuta, azkenean ematen direnen arteko aldea erregularizatzea.

Horretarako, ezarpen-zentroak ziurtagiri bat helarazi beharko du Zientzia Politikarako Zuzendaritzara, eta ziurtagiri horretan adieraziko da zeintzuk diren erakunde horrek laguntzaren onuradun bakoitzari emandako urteko soldata gordina eta Gizarte Segurantzari emandako zenbatekoak. Zenbateko horien artean alderik badago, hori Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpen bidez ebartziko da.

Hala ere, onuradunak bere kontratua amaitu baino lehenago amaitzen badu laguntzaren aldia, aldi hori amaitzen duenean justifikatuko du ezarpen-zentroak, aurreko paragrafoan aipatzen den moduan.

Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpen bidez likidatuko da zentro kontratugileei ikertzaileen ordainsari gordinetarako ordaindutako zenbateko gordinen eta, agindu honetan jasotako egoera guztiak aplikatuta, azkenean ematen diren benetako kopuruen arteko aldea.

j) Diru-laguntza jasotako egoeraren xedea edo izaera asko aldatzen duen edozein gorabeheraren berri ematea; era berean, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari laguntzea jarduera horien egiaztapen-, inspektzio-, jarraipen- eta kontrol-prozeduretan.

2.– I eta C modalitateetako onuradunen ezarpen-zentroek 1.d, 1.e eta 1.f idatzi-zatietan adierazitakoa soilik hartuko dute kontuan.

3.– Ezarpen-zentroak derrigorrez bete beharko du EAeko Ogasun Orokorreko Antolarauean Legearen Testu Bateginaren VI.tituluan xedatutakoa, EAeko herri-administrazioen laguntzen eta diru-laguntzen araubideari buruzkoa.

#### 4. ATALA

##### LAGUNTZA ONARTZEA, HARI UKO EGITEA ETA BATERAEZINTASUNAK

###### 12. artikulua.– Laguntzaren onarpena.

1.– Agindu honetan araututako doktoratu aurreko laguntzaren onuradunak egutegiko 10 eguneko epea izango du laguntzari berriaz eta idazki bidez uko egiteko, Ebazpena [www.Euskadi.eus](http://www.Euskadi.eus) egoitza elektronikoaren iragarki-taulan jakinarazten denetik aurrera. Horrelakorik egin ezean, laguntza onartutzat hartuko da.

2.– Prestakuntza-aldian diren ikertzaileek laguntza onartzen badute, ulertuko da 9. eta 10. artikuluetan jasotako eskubideak onartzen dituztela eta betebeharrak beteko dituztela.

###### 13. artikulua.– Laguntzari uko egitea.

1.– Uko egin izana modu telematikoan jakinarazi beharko da Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoaren bidez, [https://www.euskadi.eus/zerbitzu\\_elkartzea/2015/predoc/y22-izapide/eu](https://www.euskadi.eus/zerbitzu_elkartzea/2015/predoc/y22-izapide/eu) helbide elektronikoan, eta Zientzia Politikarako zuzendariari zuzendutako nahiz prestakuntza-aldian den ikertzaileak eta ezarpen-zentroko legezko ordezkariak izenpetutako idazki bat aurkeztuta. Bertan adieraziko da zein diren uko egin izanaren arrazoiak, eta zein izango den horren eraginetarako data. Uko egitearen eraginetarako data hasi baino 10 egun natural lehenago egingo da jakinarazpen hori beranduenik ere. Horren berri, halaber, posta elektronikoz jakinaraziko da [huisiesp@euskadi.eus](mailto:huisiesp@euskadi.eus) helbidean, uko-egiteak eragina izango duen eguna baino lehen.

2.– Uko-egiteak Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpen bidez onartuko dira.

3.– Kontratua duten modalitateetan, ikertzaileek uko eginez gero, zentro enplegu-emaileak itzuli egin beharko du kontratua finantzatzeko erabili ez duen dirua; hori gorabehera, ordainketa dese-

gokirik egin bada, hori ere itzuli beharko da. Onuradunak uko egin arte jasotako diru guztia itzuli egin beharko da, baldin eta laguntza baliatzeko lehen hiruhilekoan uko egiten bada.

4.– C modalitatean, uko egin arte jasotako diru guztia itzuli egin beharko da, baldin eta laguntzaz baliatzeko lehen hiruhilekoan uko egiten bada. Aldiaren gainerakoan, uko egin izanaren ondorio ekonomikoak uko egiten den egunetik aurrera aplikatuko dira; hori gorabehera, ordainketa desegokirik egin bada, hori ere itzuli beharko da.

14. artikulua.– Bateriaezintasunen araubidea.

1.– Programa honetako laguntza jasoz gero, oro har, ezingo da inolako soldata-zenbatekorik jaso, artikulua honetako 3. idatzi-zatian aurreikusitakoa bazter utzi gabe.

2.– Zientzia Politikarako Zuzendaritzak baimena eman ahal izango du irakasle-lanetan laguntzeko, prestakuntza-helburuei jarraiki; urtean 60 orduz, gehienez ere, eta laguntzaren ikerketa-helburuari inolako kalterik eragin gabe.

Unibertsitate ez diren zentroetara atxikitako laguntzen onuradunei dagokienez, doktorego-programan matrikulatuta dauden unibertsitatean gauzatu ahal izango dituzte lan horiek.

3.– Salbuespen gisa, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak baimena eman ahal izango die laguntzaren azken urtean daudenei laguntza bateragarri egiteko lanaldi partzialeko kontratu batekin (gehienez ere, urtean 60 ordukoa), baldin eta beren ikerketa-jarduerarekin lotutako irakaskuntzako zereginak gauzatzeko bada.

4.– Aurreko 2. eta 3. idatzi-zatietan deskribatutako baimenaren eskabi-dea Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoaren bidez egingo da, [https://www.euskadi.eus/zerbitzu\\_elkartzea/2015/predoc/y22-izapide/eu](https://www.euskadi.eus/zerbitzu_elkartzea/2015/predoc/y22-izapide/eu) helbide elektronikoan, eta kontratua hasteko aurreikusitako eguna baino hamabost egun lehenago, gutxienez. Ikerketa-arloan eskumena duen errektoreordeak, atxikipen-departamentuko zuzendariak, proiektuaren zuzendariak eta onuradunek sinatu beharko dute baimen hori.

5.– Programa honetako laguntza baliatzea bateragarria da prestatzen ari diren ikertzaileen ezarpen-zentroak ez diren zentroetan egonaldi laburrak egiteko laguntzekin, 9.4 artikuluan jasota ageri den bezala.

6.– Zientzia Politikarako Zuzendaritzak honako jarduera hauek soilik hartuko ditu bere gain: onuraduna egiten ari den ikerketarekin zuzenean lotutako irakaskuntza-zereginak (ikastaroak, hitzaldiak edo txostenak) edo ikerketa-lanetatik etorritakoak (liburuak, artikulak edo erakusketak), betiere, gainera, horiek guztiak aldizkakoak eta ezohikoak diren heinean. Jasotze horiek ezin izango dute laguntzaren urteko zenbateko gordin osoaren % 30 gaintitu.

Baimentzeko eskaera Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoaren bidez egingo da, [https://www.euskadi.eus/zerbitzu\\_elkartzea/2015/predoc/y22-izapide/eu](https://www.euskadi.eus/zerbitzu_elkartzea/2015/predoc/y22-izapide/eu) helbide elektronikoan, eta lana hasteko aurreikusitako eguna baino hamabost egun lehenago, gutxienez. Atxikipen-departamentuko zuzendariak, proiektuaren zuzendariak eta onuradunek sinatu beharko dute baimen hori.

Halaber, laguntza horiek ikertzaileak jardunean hasteko eta prestatzeko direnez, ezingo da ikertzaileak prestatzeko laguntza berririk jaso, baldin eta diruz lagundutako Programa amaitzen bada balizko Berritzealdiak barne hartuta- edo uko egiten bazaio.

15. artikulua.– Laguntzaren baldintzak aldatzea.

Laguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatu badira, edo, hala dagokionean, administrazio honek edo beste Administrazio Publiko batzuek emandako beste laguntza batzuk aldi

berean lortzen badira, diru-laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da, betiere Agindu honetan ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen baldin badira. Ondorio horietarako, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak dagokion likidazio-ebazpena emango du; ebazpen horretan, emandako zenbatekoak berriz doituko dira, eta laguntza horiek emateko ezarritako irizpideak eta mugak aplikatuko. Hartzaileek, beraz, sobera jasotako zenbatekoak itzuli beharko dituzte. Baldintzak aldatzeak emandako diru-laguntza osoa edo haren zati bat itzuli beharra baldin badakar, 19. artikuluan araututako itzultze-espedita hasiko da.

#### 16. artikulua.– Jarraipena.

Zientzia Politikarako Zuzendaritzak egin beharko du prestakuntza-aldian diren ikertzaileek egin duten lanaren jarraipen zientifiko eta teknologikoa. Horretarako, prozedura egokiak ezarriko ditu, eta egoki irizten dituen organo, batzorde edo adituak izendatu ahal izango ditu, laguntzaren aplikazioaren beharrezko jarraipen- eta egiaztapen-jarduerak gauzatzeko, eta beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarria aurkez dadila eskatzeko, Agindu honetan kasu bakoitzerako berariaz ezartzen den informazioaz gainera.

#### 17. artikulua.– Ikusapena eta kontrola.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak beharrezko ikuskatze- eta kontrol-lanak egin ahal izango ditu agindu honen helburuak betetzen direla bermatzeko, betiere Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren eginkizunen kalterik gabe.

#### 18. artikulua.– Ez-betetzea.

Laguntza itzultzeko prozedurari ekingo zaio laguntzaren onuradunak eta/edo ezarpen-zenetroak edo erakunde kontratugileak Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 53.1 artikuluan adierazitako kasuetako batean sartzen badira, edo urratu egiten badituzte Agindu honetan eta bete beharreko gainerako arauetan eta laguntzak emateko ebazpenean arautzen diren baldintza edo betebeharrak.

19. artikulua.– Laguntza jasotzeko eskubidea galdu dela deklaratzeko, eta, beharrezkoa bada, laguntza itzultzeko prozedura.

1.– Agindu honetan aurreikusitakoak betetzen ez direnean, prozedura hau beteko da:

a) Prozedurari Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak emango dio hasiera, eta Zientzia Politikarako zuzendariak jakinaraziko du. Prozedura hasiz gero, eten egingo dira oraindik egiteke dauden ordainketak.

b) Aipatu ebazpenak oinarri dituen arrazoiak jasoko ditu, eta 15 eguneko epea emango du egokitatzeko jotako alegazioak egiteko.

c) Alegazioak jaso ondoren, edo epea igaro bada alegaziorik jaso gabe, amaiera emango zaio prozedurari, Zientzia Politikarako zuzendariaren ebazpen bidez.

Hamabi hilabetekoa izango da, gehienez ere, itzultze-prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea.

Ebazpenak ulertzen badu arauak ez direla bete, laguntza jasotzeko eskubidea galdu dela aitortuko du, eta, hala badagokio, adieraziko du kopuruak EAEko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar zaizkiola, gehi laguntza ordaindu zenetik dagozkion legezko interesak; horretarako epea, gehienez ere, bi hilabetekoa izango da, ebazpena jakinarazten denetik aurrera. Epe hori borondatezko alditzat joko da.

d) Borondatezko epean laguntza itzuli ezean, Ekonomia eta Ogasun Saileko Ogasun eta Finantza Sailburuordetzari emango zaio horren berri, aplikatu beharreko legezko arauak xedatutakoa kontuan hartuta jarduteko.

20. artikulua.– Datu pertsonalak.

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa –Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa– eta otsailaren 25eko 2/2004 Legea –Izaera Pertsonaleko Datuen Fitxategi Publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzkoa– betez, deialdi honetan parte hartzen dutenek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatzeko eta argitaratzeko. Datuok Hezkuntza, Unibertsitate eta Kulturako sailburuak 2010eko urriaren 4an emandako Aginduan jasotzen den «Bekadunentzako laguntzak» izeneko fitxategian sartuko dira (Zientzia Politikarako Zuzendaritzako 3. fitxategia da); agindu horren bidez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren izaera pertsonaleko datuen fitxategi jakin batzuk arautzen dira.

Zientzia Politikarako Zuzendaritzan erabili ahal izango dira eskuratzeko, zuzentzeko, baliogabetzeko eta aurka egiteko eskubideak; horretarako, honako helbide honetara jo beharko da: Donostia kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Era berean, deialdi honetara aurkeztzen diren pertsonen baimena ematen diote Zientzia Politikarako Zuzendaritzari, aurkeztutako dokumentuak egiazkoak diren egiaztatzeko, beste erakunde publiko batzuetan.

## II. KAPITULUA

### LAGUNTZEN IZAPIDEAK ETA EBAZPENA ETA LAGUNTZAK ARGITARATZEA.

21. artikulua.– Kudeaketa-organoa.

Zientzia Politikarako Zuzendaritzari dagozkio deialdi honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko lanak.

22. artikulua.– Eskabideak formalizatzea eta horiek aurkezteko epea.

1.– Eskaera egiteko, inskripzio-orria erabili beharko da; inskripzio-orri hori, berriz, modu telematikoz lortu ahal izango da, Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoaren bitartez, helbide elektroniko honetan: [https://www.euskadi.eus/zerbitzu\\_elkartzea/2015/predoc/y22-izapide/eu](https://www.euskadi.eus/zerbitzu_elkartzea/2015/predoc/y22-izapide/eu). Helbide horretatik, izangaia politika zientifikoko aplikazio informatikoan sartuko da, eta bertan alta hartu beharko du erabiltzaile moduan, eta aplikazioan zehaztutako jarraibideak bete. Eskatzailearen identitatea egiaztatu egingo da, pertsona horren esanbidezko baimenarekin, datuak egiaztatzeko zerbitzuaren bitartez. Zerbitzu hori Administrazio Elektronikoari buruzko 21/2012 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian jasota dago.

Eskabidearekin batera aurkeztu beharko den dokumentazioa bide elektronikoa erabiliz soilik aurkeztuko da, eta laguntza Berrietarako Agindu honetako 27. artikuluan eta Berritzeetarako 34. artikuluan azaltzen den dokumentazioa izango da. Dokumentazio hori elkarreragingarritasun-eskema nazionala arautzen duen 4/2010 Errege Dekretuan eta hura garatzen duen araudian arautzen diren formatuetara egokituko da.

2.– Eskabide telematikoa guztiz betetakoan, eta 7. artikuluko dokumentuan aplikazioaren bidez bidaliz gero, eskatzaileak, Egoitza Elektronikoak onartutako sinadura elektronikoaren edozein sistema erabiliz, eskabidea erregistratzeko prozesu elektronikoa osatu ahal izango du.

3.– Eskatzailea ezin bada sinadura elektronikoko bidez identifikatu, eskabide telematikoa bete eta amaitu ostean eta eskabidearekin batera aurkeztu behar den dokumentazioa aurkeztu ondoren, eskabidearen inprimaki ofiziala lortuko da papereko euskarrian dokumentu hori soilik aurkezteko. Dokumentu hori honako bulego hauetako edozeinetan sinatuko da:

a) «Zuzenean» herritarren zerbitzuko bulegoetan:

– Bizkaia (Kale Nagusia 85, 48011 Bilbao).

– Gipuzkoa (Andia 13, 20003 Donostia).

– Araba (Ramiro de Maeztu 10, behea, Vitoria-Gasteiz)

b) Euskal Herriko Unibertsitatearen Erregistro Bulegoetan, baldin eta Unibertsitate hori ezarpen-zentroa bada:

– Arabako 01 erregistro-bulegoa (Arabako Campuseko Errektoreordetza, Izardui komandantea 2, 01005 Vitoria-Gasteiz).

– Gipuzkoako 02 erregistro-bulegoa (Ignacio M.<sup>a</sup> Barriola gelategia, Elhuyar plaza 1, 20018 Donostia).

– Bizkaiko 03 erregistro-bulegoa (Errektoretza, Sarriena z.g., 48940 Leioa)

– Bizkaiko 04 erregistro-bulegoa (Larrako Etxea, Agirre Lehendakariaren etorbidea 83, 48015 Bilbao).

c) Posta-zerbitzua. Kasu horietan gutun-azal irekian aurkeztuko da, igorri nahi den dokumentuaren lehen orriaren goiburuan argi eta garbi azaltzeko igorpen-data.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan zehaztutako edozein lekutan.

e) Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aipatutako edozein lekutan.

Eskabidea identifikatzeko zenbakia jasoko du inprimaki ofizialak. Inprimaki ofizial hori eskuz edo elektronikoki aldatuz gero, baztertu egingo da eskabidea.

4.– Honako hauek dira dokumentazioa aurkezteko epeak:

– Laguntza Berriak: hilabeteko epea Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

– Berritzeak: 2015eko irailaren 1etik 15era, biak barne.

Doktorego-sariak: hilabetea, doktore-titulua lortu eta hurrengo egunetik aurrera.

5.– Izangai bakoitzak eskabide bakar batekin parte hartu ahal izango du deialdi honetan.

6.– Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, ezingo da eskabiderik aldatu, aginduan zehazten diren salbuespenetan izan ezik.

7.– Agindu honetako II., III. eta IV. eranskinetan azaltzen dira eskabide-ereduak.

23. artikulua.– Eskabideetako akatsak zuzentzea.

Eskabideak oso-osorik beteta etorri ezean, edo manuzko agiri guztiekin batera aurkezten ez badira, interesdunari eskatuko zaio hamar laneguneko epe luzaezinean akats hori zuzentzeko, edo nahitaezko agiriak modu telematikoan aurkezteko Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoaren bidez, [https://www.euskadi.eus/zerbitzu\\_elkartzea/2015/predoc/y22-izapide/eu](https://www.euskadi.eus/zerbitzu_elkartzea/2015/predoc/y22-izapide/eu) helbide elektronikoan, 22. artikuluko 2. eta 3. idatzi-zatietan ezarritako prozeduraren arabera. Hori egin ezean, ulertuko da eskatzaileak atzera egiten duela eskabidean; hala ere, Administrazioak atzera-egite hori adierazten duen berriazko ebazpena eman eta jakinarazi beharko du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/71 Legeko 71.1 eta 42.1 artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz.

32. artikulua. – Laguntza emateko prozedura erabiliko da zuzentzeko errekerimendua jakinarazteko.

24. artikulua. – Laguntzak emateko prozedurak.

1. – Deialdi honetan aurreikusitako laguntza Berriak lehiaketa bidez emango dira, publizitateari, gardentasunari, objektibotasunari, berdintasunari eta bereizkeriarik ezari buruzko printzipioen arabera.

Horretarako, aurkeztutako eskabideak alderatuz emango dira laguntzak, laguntzen arteko hurrenkera bat ezartzeko hautespen-irizpideen arabera. 65 puntu lortzen dutenei soilik emango zaie laguntza, hurrengo kapituluetan jasotzen diren baldintzetan, 4.1 artikuluan ezarritako zenbatekoa agortu arte; betiere, 4. artikuluko 2. idatzi-zatian eta 31.3 artikuluan adierazitakoaren kalterik gabe.

2. – Laguntzak aurrekontu-aukerak kontuan izanik berrituko dira, eskabidea garaiz eta forma egokian aurkezten denean, eta 33. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen direla dokumentu bidez egiaztatzen bada. 4.1 artikuluan aurreikusitako zenbatekoa kalkulatzeko, programa honetan legez gaitutako onuradun guztiek berritzea eskatuko dutela jo da.

### III. KAPITULUA

#### LAGUNTZA BERRIAK

##### 1. ATALA

#### ESKAKIZUNAK ETA DOKUMENTAZIOA

25. artikulua. – Eskatzaileek bete beharreko eskakizunak.

1. – EAEko udalerriren batean erroldatuta egotea eskabidea aurkezteko unean; 2015eko urtarrilaren 1etik hasita (A modalitatean) edo 2013ko urtarrilaren 1etik hasita (B edo I modalitateetan).

Hala eta guztiz ere, onartu egingo dira EAEn erroldatuta egon ohi diren pertsonen eskabideak, baldin eta eskakizun hori betetzen ez badute deialdi honen xedearekin lotutako graduako edo graduondoko unibertsitate-ikasketak EAetik kanpo egin dituztelako.

2. – Erkidegotik kanpoko atzerritarren kasuan, egoitza-baimena eduki behar dute.

3. – Doktorego Ofizialeko programa baten matrikula edo baldintzarik gabeko onarpena egiaztatu beharko da.



Hala eta guztiz ere, deialdian parte hartzeko eskabidea onartuko zaie 2015eko azarorako doktorego-programan sartzeari espero duten pertsona guztiei. Eskabide hori behin-behinean ebaluatuko da. Behin betiko onartuko da, baldin eta eskatzaileak 2015eko azaroaren 30a baino lehen igortzen badu Zientzia Politikarako Zuzendaritzara doktorego-programan behin betiko onartu dutela egiaztatzen duen dokumentazioa.

4.– Honako titulazio hauetakoren bat duela egiaztatu beharko du:

a) Unibertsitate-graduak eta -masterreko espainiar titulu ofiziala. Ikasketak horien guztien iraupena 300 ECTS kredituak izango da gutxienez.

b) Espainiako unibertsitate-titulu ofiziala (Lizentziatura, Arkitektura, Ingeniaritza, Arkitektura teknikoa, Ingeniaritza teknikoa, Diplomatura), edo Europako Goi-mailako Hezkuntzaren Esparrua osatzen duen beste herrialde batekoa, Masterrerako sarbidea lortzeko gaitzen duena, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren 16. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta unibertsitate-ikasketak ofizial guztietan gutxienez 300 ECTS kreditu gainditu izana, eta horietatik, gutxienez 60 Master-mailakoak izango dira.

Nolanahi ere, eskabidea egiten denean masterreko tesiaren kalifikazioaren zain daudelako masterreko ikasketak bukatu ez dituzten eta doktorego-programan sartzeko master-titulua 2015eko irailaren bukaerarako lortzea espero duten pertsonen eskabideak kautelaz onartuko dira. Behin betiko onartuko da, baldin eta eskatzaileak 2015eko urriaren 24a baino lehen igortzen badu Zientzia Politikarako Zuzendaritzara masterra amaitu duela egiaztatzen duen dokumentazio ofiziala.

c) Doktorego-ikasketetan sartzeko titulua ematen duen herrialdean ahalmena ematen duten atzerriko hezkuntza-sistemen arabera lortutako titulua.

5.– Unibertsitate-masterrean sartzeko ikasketen amaiera-data 2011ko ekaina izango da edota geroagoko data honako salbuespen hauekin:

a) Amaiera-data 2009ko ekaina edo geroagoko data izan daiteke 2009ko ekainetik 2011ko ekainera bitarte 3 urtetik beherako seme-alabak artatzen eta zaintzen aritu diren eskatzaileen kasuan.

b) Ikasketak amaitzeko data 2007ko ekaina edo geroagoko data izan daiteke Medikuntza, Farmazia, Biologia, Kimika edo Psikologia lizentziadunentzat, baldin eta laguntza eskatzen dutenean Medikuntzako Espezialitateko titulu ofiziala (BABE) edo Farmaziako Espezialitatekoa (BAFE) badute, edo Biologia, Kimika edo Psikologiako espezialitateetako ziurtagiri ofiziala (BABE, BAKE edo BAPE, hurrenez hurren).

6.– Batez besteko nota honako hau edo hortik gorakoa izatea:

a) 6 puntu 10., 11. eta 12. arloak egiteko.

b) 6,5 puntu 1., 2., 3., 8., 9., 13., 15. eta 16. arloak egiteko.

c) 7 puntu 4., 5., 6., 7., 14., 17., eta 18. arloak egiteko.

Batez besteko nota hori kalkulatzeko, lizentziatura, ingeniari, arkitektura edo unibertsitate-graduak batez besteko notari erreparatuko zaio, eta Lizentziaturako, Ingeniaritzako, Arkitekturako, Unibertsitate-graduak, Ingeniaritza teknikoko, Arkitektura Teknikoko edo Diplomaturako ikasketen espedientean –1etik 10era bitarteko eskalan– jasotzen den batez besteko notari 0,01 puntu gehitu beharko zaio Ohorezko Matrikulako aipamenaz kalifikatzen den kreditu bakoitzeko.

Ikasketen espedienteak ez badu jasotzen batez besteko nota 1etik 10era bitarteko eskalan, honela kalkulatu da: asignatura bakoitzean lortutako kalifikazio numerikoa bider asignatura

horretako kreditu-kopurua zati kalifikazioarekin guztira lortutako kreditu guztien batura. Berritzen ez diren planen kasuan, batez besteko nota izango da berdin lortutako kalifikazioen batuketa zati gainditutako ikasgai guztien kopurua.

Espedientearen batez bestekoa kalkulatu ahal izateko, baliozkotu edo egokitu dituen unibertsitateak kalifikatu ez dituen baliozkotutako edo egokitutako ikasgaien edo kredituen kasuan, jatorrizko ikastetxean edo ikasketetan lortutako kalifikazioak zenbatuko dira, agiri bidez egiaztatuta baldin badaude. Dokumentu bidez egiaztatu ezean, gainditutzat joko dira.

Era berean, espedienteko batez besteko nota kalkulatzeko, ez da kontuan hartuko beste espezialitate batzuetako ikasgaietan lortutako notarik, ezta master-ikasketen notarik ere.

Ikasketak atzerrian egin dituzten eskatzaileek, batez besteko nota kalkulatzeko, gure sistema hamartarreko kalifikazio baliokideetara moldatu beharko dituzte ziurtagiri akademikoetako kalifikazioak, masterreko ikasketetako notak edo ikasketa horien baliokideak diren notak salbuetsita, prozedura honen arabera:

Gurea ez den kalifikazio-sistema baten bidez ebaluatutako ikasgai bakoitzeko nota gure sistemaren bidez adierazteko –kontuan hartuta gure sistemako nota, gehienez ere, 10ekoa dela eta 5 lortu behar dela irakasgaia gainditzeko–, algoritmo hau aplikatu behar zaio ikasgai bakoitzeko notari:

$$10 \text{ oinarrian lortu beharreko nota} = [5/(M-m)]*(N-m)+5$$

M: espediente akademikoari aplikatutako kalifikazio-sisteman lortu ahal den notarik altuena.

m: ikasgaiagainditzeko behar den nota, espediente akademikoari aplikatutako kalifikazio-sisteman.

N: espedientearen ageri den irakasgaiaren lortutako nota, ikasketak egin diren herrialdeko sistemaren arabera.

Ziurtagiri akademikoetako kalifikazioetan ezinezkoa bada haien baliokidea zehaztea Espainiako sistema hamartarrean, baina gaiak gaindituta daudela frogatuta badago, haiek gainditutzat soilik joko dira ondorio guztietarako.

7.– Ez izatea diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera kentzen dion zehapen penal edo administratiborik, edo horretarako gaitasuna kentzen dion debeku legalaren pean erori ez izana, sexu-bereizkeriagatikoak barne hartuta, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak –emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoak– azken xedapenetako seigarrenean ezarritakoari jarraiki.

8.– 2015eko ekainaren 1a baino lehenago ez izatea doktoreak ez diren ikertzaileak prestatzeko eta doktore-tesia egiteko programen laguntzarik, edo halako laguntzarik jaso ez izana.

26. artikulua.– Eskakizunak betetzea.

1.– Onuradunek laguntza-eskabidea aurkezten dutenean egiaztatu beharko dute eskakizunak betetzen dituztela –berriaz aipatutako salbuespenetan izan ezik–, eta ezarpen-zentrora sartu edo kontratua sinatu arte bete beharko dituzte.

2.– Hautapen-prozesutik kanpo geldituko dira eskatutako eskakizunak betetzen ez dituzten edo betetzen dituztela garaiz eta forma egokian frogatzen ez duten pertsonak. Horrek ekarriko du prozesuan parte-hartzeagatik sor daitezkeen eskubide guztiak galtzea.

27. artikulua.– Laguntza berrietarako nahitaezko dokumentazioa.

Ondoren adieraziko den dokumentazioa aplikazio informatiko bidez aurkeztu beharko da eskabide-orriarekin batera, 22. artikuluan 1., 2., eta 3. idatzi-zatietan adierazitakoaren arabera.

1.– Eskatzailea EAeko udalerriren batean erroldatuta dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria. Erroldatuta egon behar du 2015eko urtarrilaren 1etik, gutxienez, A modalitatean aurkeztuz gero; 2013ko urtarrilaren 1etik, berriz, B edo I modalitatean aurkezten bada.

Deialdi honen xedearekin lotutako unibertsitate-ikasketak direla-eta, erroldari buruzko eskakizun hori betetzen ez duenak ikasketa horien matrikula edo beste edozein egiaztagiria ofizial aurkeztu beharko du; halaber, ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu egiaztatzeke aurrez EAEn erroldatuta egon dela, eta, justifikatu beharreko denbora horretan guztian beste autonomia-erkidego batean edo atzerrian erroldatuta egon dela (atzerrian egon bada, enbaxadako erregistroa aurkeztu beharko du).

2.– Egoitza-baimena, hala badagokio.

3.– 25.4 artikuluan eskatzen den titulua edo titulua emateko eskubideak ordaindu direla egiaztatzen duen dokumentua.

4.– 25.4 idatzi-zatian aipatutako titulazioa lortzeko ikasketen jatorrizko ziurtagiri akademikoa, unitatearen arduradunak emana. Ikasketen ziurtagirian honako datu hauek jasoko dira: ikasketen izena, titulazioaren programako ikasgai guztiak, gainditutako ikasgaiak eta lortutako kalifikazioak eta kalifikazio horiei dagozkien datak. Espedienteak 1etik 10era bitarteko batez besteko nota adierazi behar du.

Ikasketak atzerrian egin badira, ziurtagiri akademiko ofiziala aurkeztuko da, baita ziurtagiri horren zinpeko itzulpena ere, baldin eta ziurtagiria EAeko bi hizkuntza ofizialetako batean ez badago. Edonola ere, espediente akademikoaren ziurtagirian edo espedienteari atxikitako beste dokumentu batean jaso beharko da zein diren dagokion ebaluazio-sistemako gehieneko eta gutxieneko kalifikazioak, eta zein den ikasgai bakoitza gainditzeko behar den gutxieneko kalifikazioa. Gainera, ANECA/Kalitatea Ebaluatu eta Egiaztatzeke Estatuko Agentziaren ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko du, eta adierazi zein den espediente akademikoaren batez besteko kalifikazioa Espainiako ebaluazio-sistemaren barruan.

Unibertsitateko goi-mailako titulu bat baino gehiago izanez gero, espediente akademikoa eta titulazioa eskuratzeko data kalkulatzeko, aukeratutako doktorego-programarekin zerikusirik handiena duena soilik hartuko da kontuan. Gainerako titulazioak ere kontuan hartu ahal izango dira curriculum vitae balioesteko.

Lehen zikloko espediente bat eta bigarren zikloko beste bat izanez gero, bietan oinarrituta kalkulatu da batez besteko nota, bietan lortutako kalifikazioak kontuan hartuta.

5.– Eskatzailea ezarpen-zentroari atxikitako departamentuan onartu dutela adierazten duen idazkia, departamentuko zuzendariak sinatuta.

6.– Ezarpen-zentroaren idazki bidezko konpromisoa –bertako legezko ordezkariak sinatutakoa (ikerketako errektoreordeak edo haren balioak, unibertsitateen kasuan)–, laguntza lortzen duten eta doktoreak ez diren ikertzaileei doktoratu aurreko kontratua formalizatzeko, betiere kontratua duten modalitateetan.

Idazki horretan esanbidez adieraziko da Agindu honetako 11. artikuluan ezartzen diren betebeharrak beteko direla.

Ezarpen-zentroa UPV/EHU duten eskabideei dagokienez, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak ofizioz eskatuko du konpromiso hori.

7.– Doktorego-programa ofizial batean baldintzarik gabe onartu izanaren idazkia, 25.3 artikuluan ezarritakoaren arabera; programa horretaz arduratzen den unitateak edo doktoregoko edo graduondoko eskolak eman beharko du idazki hori, eta eskumena duenak sinatu.

Onarpena 2015eko azarorako lortzea espero denean, laguntza-eskabidearekin batera, doktorego- programarako onarpen baldintzatu edo behin-behinekoa adierazten duen idazkia ere aurkeztu beharko du eskatzaileak; bestalde, 2015eko azaroaren 30a baino lehenago –egun hori barne– helarazi beharko du onarpen ez-baldintzatuaren ziurtagiria Zientzia Politikarako Zuzendaritzara. Bi ziurtagiri horiek doktorego-programako edo doktorego edo graduondoko eskolako pertsona eskudunak eman eta sinatuko ditu.

8.– Eskatzailea onartu duten doktorego-programaren ezaugarri adierazgarrienak bilduko dituen memoria formatu normalizatua. Ezaugarri horien artean honako hauek nabarmenduko dira esanbidez: eskatzailearen ikerketa-prestakuntzarako hautatutako doktorego-programaren oinarri direnak. Zehaztu beharko da doktorego-programa bikaintasunerako bidean aipamenarekin nabarmendu den, aipamen horretarako aldeko txostena duen, edo programaren kalitatea erkatzea ahalbidetuko duen beste aintzatespenen bat jaso ote duen (gehienez ere 3 orrialdekoa). Alderdi horiek egiaztatzea ahalbidetuko duten erreferentziak edo frogak aurkeztuko dira.

9.– Eskatzailea sartuko den ikerketa-taldeari buruzko memoria formatu normalizatuan (gehienez ere, orrialde batekoa), eskatzailearen zientzia-kalitatea eta prestakuntza-ahalmena adierazita.

10.– Doktore-tesiaren proiektuaren memoria zientifiko-teknikoa formatu normalizatuan, proiektuaren zuzendariak, eta zuzendarikideak (balego) sinatua. Memoria horren edukia honako hau izango da: laburpena, aurrekariak, helburuak, metodologia eta lanerako plana interes zientifikoa eta/edo soziala eta bibliografia nabarmenena (gehienez ere 3 orrialdekoa). Memoria horretan honako hau bilduko da esanbidez:

a) Espero ote den eskatzaileak doktore-tesiaren proiektuaren eta haren defentsaren helburuak lortuko dituela laguntza jasoko duen 3 urteetan lanaldi osoko dedikazioarekin.

b) Agindu honetako 8. artikulua arabera aplikatzekoak diren printzipio etikoak hartuko ditu kontuan proiektuak.

EAEko hizkuntza ofizialetako batean aurkeztu beharko dira memoriak. Era berean, memoriak normalizatu gabeko formatuetan aurkeztuz gero edo artikulua honetan zehaztutakoak baino orrialde gehiago izanez gero, eskabidearen zuzendu beharreko hutsunetat joko dira.

11.– Eskatzailearen curriculum vitae normalizatua; horrekin batera, curriculum vitaean alegatzen diren merezimendu akademikoak eta zientifikoak egiaztatzen dituen dokumentazioaren kopia aurkeztuko da; argitalpenak egin baditu, lehenengo orrialdearen fotokopia, eta laguntzak lortu baditu, laguntzak emateko Ebazpenaren fotokopia.

12.– Sinatutako tesi-proiektuaren zuzendariaren (eta, hala badagokio, zuzendarikidearen) curriculum vitae. Bertan azken 5 urteetako merezimendu zientifikoak bilduko dira. Ingelesez aurkeztu ahal izango da, edo, EAEko hizkuntza ofizialetako batean.

13.– Eskabidean azaltzen den erantzukizunpeko adierazpenean jasotakoak egiaztatzen dituen dokumentazioa, halakorik behar izanez gero.

14.– Masterraren espediente akademikoa, eskabidea aurkeztu arte lortutako kalifikazioekin. Espediente horretan kalifikazio horiek lortu zireneko datak azalduko dira.

15.– 25.5 artikuluan bildutako salbuespenak egiaztatzen dituen dokumentazio ofiziala, halakorik behar izanez gero.

## 2. ATALA

## HAUTATZEKO ETA ESLEITZEKO PROZESUA

28. artikulua.– Hautapen-prozesuko hautagaiak onartzeko prozedura.

1.– Eskabideak zuzentzeko epea igaro eta eskabideok ebatzi ostean, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak ebazpena emango du, hautapen-prozesuan onartutako eta baztertutako pertsonen gainekoa. Era berean, ebazpen horretan adieraziko da noiz egingo dituzten elkarrizketa pertsonalak, arlo bakoitzeko aholku-batzorde bereziek balioetsi beharrekoak.

Ebazpena jakinarazteko, 32. artikuluaaren laugarren idatzi-zatian ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

2.– Elkarrizketa pertsonaletara joan ahal izango dira, badaezpada, aurreko atalean adierazitako ebazpenean baztertutako pertsonak, arlo bakoitzeko berariazko aholku-batzordeek balioetsi ditzaten; horretarako, egiaztatu beharko dute errekurtsioa jarri nahi dutela baztertzearen kontra. Errekurtsio hori ezesten bada, elkarrizketa pertsonalak ez du baliorik izango, eta berariazko aholku-batzordeak ematen duen balorazioak ere ez.

29. artikulua.– Berariazko aholku-batzordeak, ebaluazio-irizpideak eta baremoa.

1.– Hautapen-prozesurako onartutako pertsonak I. eranskinean definitutako arlo bakoitzari dagokion berariazko aholku-batzordeak balioetsiko ditu

2.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak izendatuko ditu berariazko aholku-batzordeetako kideak; kideok, berriz, entzute handiko pertsonak izango dira ikasketa- eta ikerketa-eremuan.

3.– Berariazko aholku-batzordeek honako irizpide hauen arabera ebaluatuko dituzte onartutako eskabideak:

– Espediente akademikoa: puntuazioa kalkulatzeko, espedientearen batez bestekoa hartuko da oinarritzat, 25 artikuluan adierazitakoari jarraiki, eta zenbaki hori bider 4 kalkulatu da. 6. 40 puntu, gehienez ere.

– Eskatzailearen curriculum vitae. 5 puntu, gehienez ere.

– Doktorego-programa: eskatzailearen ikerketa-prestakuntzarako kalitatea eta egokitasuna (5 puntu, gehienez ere) eta EAEko I+G+Bko estrategiarekin zenbateraino datorren bat (10 puntu, gehienez ere).

Euskal unibertsitate-sistemako doktorego-programak ez ezik, sistema horretakoak ez diren, baina tesia kotutoretza-erregimenean garatzeko euskal unibertsitate-sistemako unibertsitateekin ezarritako hitzarmenetan jasota dauden programak ere EAEko I+Gko estrategiarekin % 100 bat datozela ulertuko da.

Ulertuko da euskal unibertsitate-sistematik kanpoko gainerako doktorego-programen bat-etortze maila gutxienekoa dela, salbu eta egiaztatzen bada Zientzia eta Teknologiaarako Euskal Sistema osatzen duten ikertzaileak inplikaturik daudela proposatutako tesi-proiektuaren kozuzendaritzan (2,5 puntu), edo zuzendarikide horiek zuzenean parte hartzen dutela doktorego-programa horietan (5 puntu).

– Doktorego-tesiaren proiektua: kalitate zientifiko-teknikoa, aurkeztutako proiektuaren eta ikerketa-planaren interesa eta bideragarritasuna. 10 puntu, gehienez ere.

– Zientzia Zuzendaritza: ikerketa-proiektuaren zuzendariaren historial zientifikoa eta eskatzailea sartuko den ikerketa-taldearen prestakuntza-ahalmena. 10 puntu, gehienez ere.

– Elkarrizketa pertsonala: aurrez aurrekoa izango da elkarrizketa, eta eskatzailearen prestakuntzari eta curriculumari, ikerketa-proiektuari edo egoki irizten den beste edozein alderdiri buruz hitz egingo da. 20 puntu, gehienez ere.

4.– Laguntza ukatzeko arrazoi izango da eskatzailea elkarrizketara ez azaltzea, edo 65 puntu baino gutxiago edo emaitza negatiboa lortzea; aktetan azaldu beharko dira emaitza negatiboen zioak, berriazko aholku-batzordeek ebaluatu beharreko alderdi batzuenak edo guztienak izan.

30. artikulua.– Nola jokatu elkarrizketetan.

1.– Berriazko aholku-batzordeetako kideak ez badira ondo moldatzen ebaluatu behar duten pertsonak aukeratzen duen hizkuntza ofizialean –EAEko hizkuntza ofizialean–, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak bermatu beharko du, batetik, intereseko dokumentazioa itzultzeko zerbitzua, eta, bestetik, aldibereko itzulpen-zerbitzua, elkarrizketa pertsonalerako.

2.– Zientzia Politikarako Zuzendaritzak giza baliabide eta baliabide material osagarriak emango dizkie desgaitasuna duten pertsoneri, egingo dituzten elkarrizketetan aukera berak izango dituztela bermatuko dizkieten baliabideak, hain zuzen ere.

31. artikulua.– Laguntza Berriak esleitzeko prozedura.

1.– Agindu honetan araututako laguntza Berriak emateko prozedura lehiaketarena egingo da.

Horretarako, 29. artikuluan aipatutako ebaluazio-irizpideei jarraikiz, arlo bakoitzeko berriazko aholku-batzordeak izangaiak proposatuko dizkio hautapen-batzordeari. Esleituak izateko, 65 puntu edo gehiago izan beharko dituzte izangaiak, eta balioespen positiboa eduki aktetan.

2.– Zientzia Politikarako zuzendariak, Unibertsitateen zuzendariak eta Zientzia Politikarako Zuzendaritzako teknikari batek osatuko dute hautapen-batzordea. Teknikari hori Zientzia Politikarako zuzendariak hautatuko du, eta batzordeko idazkari izango da.

3.– Zientzia Politikarako Zuzendaritzak, arrazoituta, ahalmena izango du laguntza Berrien lineari dagokion zenbatekoa arloen artean banatzeko, agindu honen 29.3 artikuluan deskribatutako ebaluazio-irizpideak eta aukera litezkeen eskabideen kopurua eta aurrekontu-mugak kontuan hartuta, arlo guztietan onuradunak egon daitezen, eta linea bakoitzeko arlo bakoitzean emandako laguntza kopurua portzentualki berdina izan dadin; arlo bakoitzean hauta daitezkeen eskabideen kopuruak horretarako bidea ematen badu, betiere. Banaketa hori Laguntzak Esleitzeko Proposamenaren aktan jasoko da.

4.– Hautapen-batzordeak, berriazko aholku-batzordeen proposamena aztertu ostean, ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeari. Proposamenak honako hauek jasoko ditu: pertsona onuradunen zerrenda eta dagokien zenbateko ekonomiko xehatua, eskuragarri dagoen kreditu-mugara arte. Era berean, ordezkoen zerrenda bat ere jasoko du, arlokako lehentasunak adierazita, 65 puntu edo gehiago eta berriazko aholkularitza-batzordearen balioespen positiboa jaso badute ere, erabilgarri dagoen aurrekontua dela-eta beka-proposamenean sartu ez diren eskabideen artean. Jaso behar ditu, baita ere, ukatutako eskabideen zerrenda bat, ukatzeko arrazoiarekin batera, eta baztertutako eskabideen zerrenda bat, baztertzeko arrazoiarekin batera.

32. artikulua.– Ebazpena, ebazteko epea, jakinarazpena, errekurtsioak eta publikotasun-prozedura.

1.– Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen esanbidezko ebazpen bakarraren bidez emango edo ukatuko dira laguntza Berriak, hautapen-batzordeak emandako ebazpen-proposamena aintzat hartuta.

2.– Ebazpen hori arrazoitu egin beharko da, eta pertsona onuradunen zerrenda eta dagozkie zenbateko ekonomiko xehatuak jasoko ditu. Halaber, ordezkoen zerrenda emango da, eta zerrenda horretan adieraziko dira 65 puntu edo gehiago jaso duten eskabideak, erabilgarri dagoen aurrekontuaren ondorioz beka-proposamenean sartu ez direnak. Horrez gain, ukatutako eskabideen zerrenda ere emango da, ukatzeko arrazoiak adierazita, baita baztertutako eskabideen zerrenda ere, baztertzeko arrazoiak zehaztuta.

3.– Ebazpena sei hilabeteko epean eman eta jakinarazi beharko da, gehienez ere, agindu hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Adierazitako epe horretan ebazpena jakinarazten ez bada, eskabideak ez direla onartu ulertuko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

4.– Aipatutako ebazpena [www.Euskadi.eus](http://www.Euskadi.eus) egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuz egingo da jakinarazpena.

5.– Aurreko 4. paragrafoari kalterik eragin gabe, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak interesdunei bidali ahal izango dizkie egindako argitalpenen abisuak, SMS edo mezu elektronikoen bidez. Abisu horiek ez dute inola ere jakinarazpen-baliorik izango.

6.– Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango diote interesdunek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari hilabeteko epean, Hezkuntza, [www.Euskadi.eus](http://www.Euskadi.eus) egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera

7.– Hezkuntza eta Ikerketako sailburuordearen ebazpen bidez, laguntzak eman ahal izango zaizkie itzarote-zerrendan azaltzen diren eskatzaileei, baldin eta 25. artikuluan 3. eta 4. idatzi-zatietan aurreikusten denaren arabera, baten bat laguntza jaso gabe geratzen bada dokumentazio akademikoa epe barruan ez aurkezteagatik (dokumentazio hori aurkezteko epea atzeratzen denean), baita 2015eko abenduaren 31ra bitarteko mugan, data hori ere barne, baten batek uko egin badio ere.

Laguntza horiek hutsik geratutako plazari dagokion arloan emandako azken laguntzaren ondorengo lekuan dauden pertsoneri emango zaizkie. Arlo horretan erreserbarik ez badago beste arlo eta modalitate batzuetako eskatzaileei eman ahal izango zaizkie, lortutako balioespenaren eta EAerentzat duen interes zientifikoaren arabera.

Ondorio horietarako, laguntzak emango dituen Organoak laguntzak emateko proposamena jakinaraziko die interesdunei, 10 eguneko epe luzaezinean onar dezaten. Behin proposamena onartutakoan, laguntza emateko ebazpena emango du, eta interesdunei jakinaraziko.

#### IV. KAPITULUA

##### LAGUNTZAK BERRITZEA.

##### 1. ATALA

##### ESKAKIZUNAK ETA DOKUMENTAZIOA

33. artikulua.– Eskakizunak.

1.– 2014-2015 ikasturtean emandako doktoratu aurreko laguntza baliatzen aritzea, Hezkuntza eta Ikerketako sailburuordearen ebazpenaren arabera, Agindu honek ondorioak dituen egunean.

2.– Ikerketa-proiektuko lanerako planean aurreikusitako jardueren aprobetxamendua egiaztatzea modalitatearen arabera dagokion egiaztatgiaren bitartez.

3.– Ez izatea diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera kentzen dion zehapen penal edo administratiborik, edo horretarako gaitasuna kentzen dion debeku legalaren pean erori ez izana, sexu-bereizkeriagatikoak barne hartuta, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak –emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoak– azken xedapenetako seigarrenean ezarritakoari jarraiki.

34. artikulua.– Eskakizunak betetzea.

1.– Onuradunek laguntza-eskabidea aurkezten dutenean egiaztatu beharko dute eskakizunak betetzen dituztela –berariaz aipatutako salbuespenetan izan ezik–, eta ezarpen-zentrorra sartu edo kontratua sinatu arte bete beharko dituzte.

2.– Hautapen-prozesutik kanpo geldituko dira eskatutako eskakizunak betetzen ez dituzten edo betetzen dituztela garaiz eta forma egokian frogatzen ez duten pertsonak. Horrek ekarriko du prozesuan parte-hartzeagatik sor daitezkeen eskubide guztiak galtzea.

35. artikulua.– Laguntzak berritzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Ondoren aipatzen den dokumentazioa modu telematikoan aurkeztu beharko da Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoaren bidez, [https://www.euskadi.eus/zerbitzu\\_elkartzea/2015/predoc/y22-izapide/eu](https://www.euskadi.eus/zerbitzu_elkartzea/2015/predoc/y22-izapide/eu) helbide elektronikoan, eskaera egiteko inprimakiarekin batera, 22. artikuluko 1., 2. eta 3. idatzi-zatietan esandakoaren arabera.

1.– Laguntza azkenengoz berritu zenez geroztik egindako ikasketa- eta ikerketa-jardueren memoria, orrialde batekoa; izanez gero, kalifikazioak ere azaldu beharko dira.

2.– A eta B modalitateetan, lehen eta bigarren berritzeetarako, doktorego-programako edo, hala badagokio, doktorego-eskolako ikasketa-batzordearen aldeko txostena, programan emandako denborari dagokiona. Txosten hori programa horren eskumena duen pertsonak sinatu beharko du.

3.– A eta B modalitateetan, hirugarren berritzerako, laguntzaren onuradunak tesia inskribatuta daukan doktorego-programaren ardura duen ikasketa-batzordearen baimena, beka beste urtebete luzatu ahal izateko.

4.– C eta I modalitateetan, ikerketa-proiektuaren zuzendariak sinatutako aldeko txostena, eskatzaileak egindako ikasketa- eta/edo ikerketa-jarduerei buruzkoa eta pertsona horren errendimenduari buruzkoa.

5.– Ezarpen-zentroaren konpromisoa –bertako legezko ordezkariak sinatutakoa (ikerketako errektoreordeak edo haren baliokideak, unibertsitateen kasuan)–, egungo lan-kontratua hamabi hilabete gehiagorik luzatzeko, hala badagokio. Ezarpen-zentroa UPV/EHU duten eskabideei dago-kienez, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak ofizioz eskatuko du konpromiso hori.

## 2. ATALA

### EBAZPENEA

36. artikulua.–Ebazpena,ebazteko epea,jakinarazpena,errekurtsoak eta publikotasun-prozedura.



1.– Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen esanbidezko ebazpen bakarraren bidez eman edo ukatuko dira Berritzeak, hautapen-batzordeak emandako ebazpen-proposamena aintzat hartuta.

2.– Ebazpen hori arrazoitu egin beharko da, eta onuradunen zerrenda eta dagozkien zenbateko ekonomiko xehatuak jasoko ditu; halaber, eskabidea ukatu eta baztertuen zerrenda bana jasoko du, eta ukatzeko eta baztertzeko arrazoiak azalduko.

3.– Ebazpena sei hilabeteko epean eman eta jakinarazi beharko da, gehienez ere, Agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Adierazitako epe horretan ebazpena jakinarazten ez bada, eskabideak ez direla onartu ulertuko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

4.– Aipatutako ebazpena [www.Euskadi.eus](http://www.Euskadi.eus) egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuz egingo da jakinarazpena.

5.– Aurreko 4. paragrafoari kalterik eragin gabe, Zientzia Politikarako Zuzendaritzak interesdunei bidali ahal izango dizkie egindako argitalpenen abisuak, SMS edo mezu elektronikoen bidez. Abisu horiek ez dute inola ere jakinarazpen-baliorik izango.

6.– Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango diote interesdunek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari hilabeteko epean, Hezkuntza, [www.Euskadi.eus](http://www.Euskadi.eus) egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

## V. KAPITULUA

### DOKTOREGOA LORTZEAGATIKO SARIAK.

#### 1. ATALA

#### ESKAKIZUNAK ETA DOKUMENTAZIOA

##### 37. artikulua.– Eskakizunak

1.– Doktoratu aurreko laguntza baliatzen aritzea, Hezkuntza eta Ikerketako sailburuordearen ebazpenaren arabera, Agindu honek ondorioak dituen egunean.

2.– A eta B modalitateetan, doktoregoko titulua Cum Laude kalifikazioarekin lortu beharko da.

3.– C eta I modalitateetan, doktoregoko titulua kasuan kasuko sistema akademikoak erabakitako kalifikaziorik onenarekin lortu beharko da.

##### 38. artikulua.– Eskakizunak betetzea.

1.– Onuradunek laguntza-eskabidea aurkezten dutenean egiaztatu beharko dute eskakizunak betetzen dituztela.

2.– Eskatutako eskakizunak betetzen ez dituzten edo betetzen dituztela garaiz eta forma egoian frogatzen ez duten pertsonak ezingo dute jaso deskribatutako saria.

##### 39. artikulua.– Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Ondoren deskribatzen den dokumentazioa modu telematikoan jakinarazi beharko da Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoen bidez, [https://www.euskadi.eus/zerbitzu\\_elkartzea/2015/predoc/y22-izapide/eu](https://www.euskadi.eus/zerbitzu_elkartzea/2015/predoc/y22-izapide/eu) helbide elektronikoen, eskaera egiteko inprimakiarekin batera, 22. artikuluko 1., 2. eta 3. idatzi-zatietan adierazitakoaren arabera.

1.– Doktore-titulua edo titulu hori jaulkitzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria, non berriaz jaso behar den doktoregoa noiz eta zer kalifikazioekin lortu den

2.– C eta I modalitateetan, kasuan kasuko herrialdeko sistema akademikoan lor daitekeen notarik onena izatea egiaztatzen duen dokumentazioa.

3.– Hirugarrenentzako alta-inprimakia, behar bezala betetako inprimaki normalizatuan.

4.– NANaren fotokopia, edo haren baliokidea, Europar Batasuneko eskatzaileak badira, edo pasaporte eskatzaileak EBtik kanpokoak badira.

## 2. ATALA

### EBAZPENA

40. artikulua.–Ebazpena, ebazteko epea, jakinarazpena, errekurtsio eta publikotasun-prozedura.

1.– Saria Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpen bidez emango da.

2.– Interesdunei ebazpena, gehienez ere, sei hilabeteko epean jakinaraziko zaie, sari-eskabidea jaso ondoko egunetik aurrera. Aipatutako epe horretan ebazpena argitaratzen ez bada, isiltasunaren ondorioz eskabideak onartu direla ulertu ahal izango da.

Ebazpen horren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera, hilabeteko epean.

3.– Arrazoi hori argudiatuta, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen ebazpen bidez ukatuko dira aurkeztu eta izapidetzen diren eskaerak (aurrekontu-zuzkidura agortu dela eta onartu ez direnak).

### AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Aplikatzekoa den araudia.– Agindu honetan aurreikusi ez denerako, honako hauek hartuko dira kontuan: EAEko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuak onartutakoa, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea.

### AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Baliabideak.– Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsioa jarri ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari hilabeteko epean, ebazpen hau EHAAan argitaratu eta biharamunetik aurrera; betiere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 107. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoari jarraituz. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri ahal izango da zuzenean EAEko Auzitegi Nagusian bi hilabeteko epean, ebazpen hau EHAAan argitaratu eta biharamunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.1) eta 46.1 artikuluetan xedatutakoarekin bat.

## AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Ondorioak.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 27a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,  
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

## I. ERANSKINA

## EBALUAZIO ARLOAK

## Oinarrizko Zientziak

1. arloa.– Lurraren zientziak. Lur-sistemari buruzko ikerketak dagozkio, Biosferaren, Litosferaren, Hidrosferaren eta Atmosferaren historia eta bilakaera, haien arteko elkarreaginak, egungo egoera eta etorkizunean izan dezaketen eboluzioa barne hartuta. Honako hauek hartzen ditu barnean: Mineralogia, Petrologia, Paleobiologia, Tafonomia, Geomorfologia, Hidrologia, Barne Geodinamika, Geofisika, Estratigrafia, Sedimentologia, Meteorologia, Klimatologia eta Atmosfera, eta Ingurumenaren Geokimika.

2. arloa.– Fisika eta Espazioaren Zientziak. Fisika eta Espazioaren Zientziei buruzko ikerketak dagozkio, Fisika modernoaren berezko jakintza-alorrekin batera: Fisika Kuantikoa eta materiaren eta unibertsoaren egitura dauzkan aplikazioak. Alor hauek barne hartzen ditu: Biofisika, Optika, Sistema Konplexuak, Fenomeno ez-linealak, Nanoteknologia, Konputazio Kuantikoa, Energia Handiko Fisika Esperimentala, Materia Kondentsatuaren Fisika, Astrofisika eta Astronomia.

3. arloa.– Matematikak. Matematikaren ikerketa-esparrua dagokio, eta alor hauek barne hartzen ditu: Geometria, Topologia, Zenbakizko Analisia, Matematika Aplikatua, Aljebra, Analisi Matematikoa, Estatistika eta Ikerketa Operatiboa.

4. arloa.– Kimika. Honako alor hauek ikertzea du xede, molekula-mailatik maila makroskopikoraino: substantzia naturalen, sintetikoen eta haiek dauzkaten laginen konposizioa, egitura, prestaketa eta propietateak, esperimendatzen dituzten elkarreaginak eta transformazioak, haien mekanismoa, haiek aztertzeke beharrezko tresneria eta ikertzeke beharrezko metodologia esperimentalak eta/edo teorikoak. Alor hauek barne hartzen ditu: Kimika Ez-organikoa, Kimika Organometalikoa, Katalisia, Kimika Supramolekularra, Material Molekularrak, Nanokimika, Kimika Biologikoa, Kimika Bioteknologikoa, Kimika Fisikoa, Kimika Analitikoa eta Kimika Organikoa.

## Bizitza- eta osasun-zientziak

5. arloa.– Funtsezko Biologia eta Sistemena. Oinarrizko zenbait ikerketa-esparru hartzen ditu: Biologia Molekularra eta Zelularra, Genetika, Neurobiologia eta Garapena, Mikrobiologia, Biologia, Landareak, Minbizia eta Desberdintzea, Fisiologia, Immunologia eta Biologia konputazionala, estrukturala eta sistemena, honako salbuespen hauek kontuan hartuta: xede nagusiak patologiek-in lotura zuzena izatea eta/edo gizakien osasuna hobetu nahi izatea.

6. arloa.– Biomedikuntza. Eragin biomediko handiko oinarrizko azterketak eta ikerketak dagozkio: gaixotasunen oinarrizko ereduak eta mekanismoak, diagnostiko molekularra edo zelularra, estrategia terapeutikoak, farmakologia molekularra eta sistemena, eta molekula bioaktiboak identifikatzea eta aurkitzea. Arlo hauek barne hartzen ditu: Mikrobiologia, Immunologia, Biologia, Gizakiaren Fisiologia, Farmakologia, Nutrizioa eta beste hainbat gai, arazo medikoei gehienbat esparru klinikora hurbildu gabe heltzen badiete, hala nola Biologia Zelularra eta Molekularra, Kardiobaskularra, Neurozientziak, Anatomia, Hepatologia, Heriotza Zelularra, Genetika, Minbizia, Endokrinologia, Gaixotasun Metabolikoak, Farmakoak aurkitzea, Farmakologia Molekularra, Farmakologia Orokorra eta Sistemena, Fisiologia Zelularra eta Sistemena.

7. arloa.– Medikuntza Klinikoa eta Epidemiologia. Helburutzat gaixotasuna, haren mekanismoak edo izan litzakeen tratamenduak hobeto ezagutzea duten ikerketa guztiak dagozkio, eta ikerketen zati handi bat gizakietan egiten bada, batez ere giza jatorriko materiala barneratzen du, edo beha-

rezkoa da proba klinikoak egitea. Kirolaz eta osasunaz egiten diren ikerketak zeharkakoak izaten dira, eta arlo hau gomendatutakoa izan arren, litekeena da proiektuari beste arlo batetik heltzea egokiago izatea, eta aukera hori kontuan hartu behar da.

8. arloa.– Landare eta Animalia Biologia, Ekologia, Ingurumena. Organismo bizidunen dibertsitateari buruzko ikerketa-esparrua dagokio, bai eta, biosferaren eremuan, haien bilakaera eta elkarreragina ere. Egitura-, funtzio- eta dinamika-alderdiak organismoen eta ekosistemen biologiaren zenbait espazio- eta denbora-eskalatan kontuan hartzen dira: Itsas Ekologia, Mikrobiologia, Eboluzio Sistemakoa, Genetika, Landareen Kontserbazioa, Lurreko Ekologia, Fisiologia, Landare Bioteknologia, Animalien Sistemakoa.

9. arloa.– Elikagaien Zientzia eta Teknologia. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza. Elikagaien Zientzia eta Teknologiarik elikagaien kalitateak zer ezaugarri dituen jakiteko ikerketak dagozkio; besteak beste, hauek jakitekoak: oinarri fisikoak, kimikoak eta biokimikoak, elikagaien mikrobiologia eta bioteknologia, osagai funtzionalak nola lortu eta haien bioeskuragarritasuna eta ebaluazioa. Honako hauek hartzen ditu barnean: Metabolismoa, Nutrizioa, Analisi Teknika Aurreratuak, Makromolekula Biologikoen Kimika, Elikagaien Segurtasuna, Elikagai Funtzionalak, Herdoilaren aurkako Ezaugarriak eta Osasunarentzako Ondorioak, Analisia Sistema Biologikoetan, Elikagaien Mikrobiologia, Prozesu Teknologikoak, Kontserbazio Teknologia Berriak, inplikaturako entzima-sistemen Ezaugarri Biokimikoak eta Molekularrak. Nekazaritzari landareen fitotekniarekin eta erabilerarekin eta nekazaritza- eta baso-sistemen kudeaketarekin zerikusia duten ikerketak dagozkio; besteak beste: erlazio hidrikoak eta lurraren eta landarearen arteko elkarreragina, landareen hobekuntza genetikoak, landaketen fisiologia eta produktibitatea, gaixotasunak, izurriteak eta belar txarren ikerketa, hala nola Nekazaritza Ekonomiaren eta Politikaren esparruko beste batzuk. Abeltzaintzari eta Arrantzari, berriz, xedetzat honako alor hauek dituzten ikerketak dagozkie: ekoizpena, gaixotasunak eta haiei aurrea hartzeko estrategiak, abeltzaintzarako interesekoak diren animalia-espezieen ugalketa eta genetika, akuikultura eta basa-fauna.

Ingeniaritzak, Teknologia eta Arkitektura.

10. arloa.– Teknologia Mekanikoak eta Ekoizpenerakoak.

Ingeniaritza mekanikoen eta ekoizpen-ingeniartzaren alorreko ikerketa guztiek osatzen dute, bai funtsezkoek bai aplikatuek; ikerketa horien artean hauek aipa daitezke: Materialen Zientzia eta Teknologia, Materialen Modelaketa, Biomekanika, Aleazio Magnetikoak, Sentsore Magnetikoak, Termoenergetika, Termoteknia eta Energia Mekanikoa, Mekanika Estrukturala, Mekanika Konputazionala, Energia, Energia Termikoaren Biltegitratzea, Optimizazio Energetikoa, Fabrikazioa, Konformazio Plastikoa, Xafla Konformazioa, Haustura eta Nekea, Makinak eta mekanismoak, Haustura Konputazionalaren Mekanika, Elementu Finituen Metodoa. Arlo honetakoak dira industria- eta ingurumen-prozesuak osatzen dituzten operazio fisiko, kimiko edo biokimikoen sorrera eta funtzionamendua hobetzeko Ingeniaritza eta Teknologia Kimikoan egiten diren ikerketak, baina kontuan izan behar da proiektuak kokapen egokiagoa izan dezakeela beste arlo batean.

11. arloa.– Komunikazio, Konputazio eta Elektronikaren Ingeniaritzak.

Ingeniaritza Elektriko, Elektroniko eta Automatikoak Ingeniaritza Elektriko klasikoaren eta kontrolaz diharduenaren gaikako eduki osoak eta Ingeniaritza Elektronikoaren edukien zati bat barne hartzen dute. Ingeniaritza Elektriko klasikoaren barruan makina elektrikoaren diseinu eta erabilerari, energia elektrikoaren sortzeko, garraiatzeko eta banatzeko prozesuei eta haien kudeaketari lotutako ikergaiak daude. Kontrolaren ingeniaritzak sistemen modelaketari, kontrol-teoria sistemetan aplikatzeari eta industria- eta etxe-prozesuak automatikoki kontrolatzeko gailuen eta ekipoen garapen eta erabilerari lotutako gaiak hartzen ditu barnean. Ingeniaritza Elektronikoaren barruan honako

alor hauek daude: Kontrolaren Ingeniaritza, Ingeniaritza Elektrikoa, Gailu Elektronikoak, Mikroelektronika. Konputazioaren eta Teknologia Informatikoaren Zientzietan egiten diren ikerketek alor hauekin dute zerikusia: Softwarearen Ingeniaritza; Datu Basea eta Segurtasuna; Konputagailuen eta Banatutako Sistemen Arkitektura; Sistema Adimendunak; Prestazio Handien Konputazioa eta Irudiaren Prozesaketa, Elektronika, Teknologia Fotonikoa, Komunikazio Optikoak, Telematika, Seinalearen Prozesaketa.

12. arloa.– Arkitektura, Ingeniaritza Zibila, Eraikuntza eta Hirigintza. Ingeniaritza Zibilak eta Arkiteturak barne hartzen dute azpiegitura zibilak hobeto planifikatu, diseinatu, eraiki, kontserbatu eta kontrolatzeko ikerketa guztia, bai eta arkitektura-eraikuntzei, hirigintzari eta lurraldearen antolaketari lotutakoa ere.

#### Gizarte Zientziak eta Giza Zientziak

13. arloa.– Hezkuntza Zientziak. Psikologia. Barruan Psikologian egiten diren ikerketa guztiak sartzen dira, bai eta honako hauek ere: oro har, didaktikarekin zerikusia duten ikerketak; hezkuntza-gaietako didaktika espezifikokoak; eta hezkuntzaren alderdi historikoak, psikologikoak eta metodologikoak. Alor hauek barne hartzen ditu: Pedagogia, Didaktika, Hezkuntzaren Psikologia, Nortasuna, Ebaluazio eta tratamendu psikologikoak, Psikobiologia, Oinarritzko Psikologia, Psikologia Ebolutiboa eta Hezkuntzarena, Psikologia Soziala, Portaera Zientzien Metodologia.

14. arloa.– Gizarte Zientziak. Diziplina hauekin zerikusia duten zientzia-helburuak aztertzen ditu: Soziologia, Gizarte Ikerketarako Teknikak, Zientzia Politikoa eta Administrazioarena, Kazetaritza, Ikus-entzunezko Komunikazioa, Publizitatea, Giza Geografia.

15. arloa.– Zuzenbidea. Ordenamendu juridikoko sektore eta diziplina guztiak biltzen ditu, ikuspuntu nazionaletik bezala nazioarteko ikuspuntutik ere. Arloan gai hauek sartzen dira: Zuzenbide Konstituzionala, Zuzenbide Administratiboa, Zuzenbide Zibila, Zuzenbide Prozesal Zibila, Zuzenbide Penal, Zuzenbide Prozesal Penal, Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Zuzenbide Pribatua, Europako Erkidego Zuzenbidea.

16. arloa.– Ekonomia. Ikerketa-esparrutzat honako hauek ditu: ekonomiaren oinarri teorikoak, metodo kuantitatiboen erabilera eta garapena eta haien aplikazio enpirikoa askotariko arazo ekonomikoetan. Diziplina ekonomikoek honako alor hauek hartzen dituzte: Ekonomia Aplikatua, Mikroekonomia, Lan Ekonomia, Familien Ekonomia, Enpresen Antolaketa, Gobernu Korporatiboa, Aplikazioak bankuetan eta zerbitzuetan, Erakundeen Ekonomia, Enpresen erregulazioa, konkurrentzia eta portaera, Gizarte Erantzukizun Korporatiboa, Analisi Ekonomikoaren Oinarriak, Teoria Ekonomikoa, Ekonomia Matematikoa, Informazioaren Ekonomia, Jokoen Teoria, Ekonomia Industrial, Makroekonomia, Nazioarteko Ekonomia, Finantza Enpirikoak.

17. arloa.– Filologia eta Filosofia. Filologia-esparruan Hizkuntza- eta Literatura-ikerketak sartzen dira, bai eta haiek kulturarekin eta gizartearekin dituzten harremanak ere. Diziplina horiei ikuspuntu teorikotik heltzen dieten lanak eta edozein historia-alditako hizkuntza edo literaturei buruzkoak biltzen dira arlo honetan. Bai eta Itzulpena eta Interpretazioa gaitzat dituzten ikerketak eta hizkuntzarekin eta literaturarekin zerikusia duten aplikazio eta baliabide teknologikoak garatzen dituztenak ere. Filosofiaren esparruari dagokionez, honako gai hauek ikertzen dira: errealitateari buruzko gai orokorrak, haiek ezagutu ote ditzakegun, giza izaera eta gizakiak munduan betetzen duen lekua, bai eta zientzia partikularretan planteatzen diren eztabaida metodologiko eta kontzeptual orokor guztiak ere. Alor hauek barne hartzen ditu: Literatura, Espainiar Literatura, Filosofia, Logikaren eta Hizkuntzaren Filosofia, Literatura Konparatua, Hizkuntza, Hizkuntzalaritza Orokorra, Filologia Klasikoa, Greziar Hizkuntzalaritza, Euskal Filologia, Filologia Modernoak, Literatura Ingelesa, Genero Ikasketak, Logika, Zientziaren Filosofia.

18. arloa.– Historia eta Artea. Historia-diziplina guztiak sartzen dira, garaien eta espezialitateen arabera, hala nola Arkeologia, eta Zientzia eta Teknika Historiografikoak. Artearen esparruan gai hauek biltzen dira: Artearen Historia, Estetika eta Arteen Teoria, Musikaren Historia, Zinemarena eta Ikus-entzunezkoena, Konposizio Arkitektonikoa, Hirigintza eta Lurraldearen Antolaketa, Eskultura, Pintura eta Marrazketa, bai eta arte-ondarea zaharberritu eta kontserbatzearekin zerikusia duten zientziak eta teknikak ere.

## II. ERANSKINA

ESKAERA ORRIA		Erreferentzia		
		BARNE KODEA		
DOKTORETZA AURREKO PROGRAMA, DOKTORE EZ DIREN IKERTZAILEAK PRESTATZEKO 2015/2016				
A.- ESKATZAILEAREN DATU PERTSONALAK.				
Abizenak eta izena *				
NAN/AIZ		Sexua *	<input type="checkbox"/> Gizonezkoa - <input type="checkbox"/> Emakumezkoa	
Nazionalitatea		Jaioteguna*		
Helbidea*		PK *		
Errolda probintzia gaur egun		EAEn erroldatutako data *		
EAEn errolda probintzia				
E-maila*		Sakelako telefonoa	Telefono finkoa	
B.- DATU AKADEMIKOAK				
IKASKETEN TITULUA				
Non burutu dituzun ikasketak:		<input type="checkbox"/> EAE/Espainia <input type="checkbox"/> Atzerria		
Unibertsitatea				
Campusa				
Zentroa				
Titulazioa				
Titulazio ofiziala noiz lortu den				
Soilik EEESTik kanpo lortutako ikasketentzat,				
Homologazio-eguna				
Ikasketak honekin homologatu dira				



2015eko abuztuaren 18a, astearta

MASTERRA	
Hemen egina:	<input type="checkbox"/> EAEn/Espanian <input type="checkbox"/> Atzerrian
Unibertsitatea	
Campus	
Zentroa	
Masterra	
Ikasi duzun edo ikasten ari zaren masterra lortzeko data	

BATEZ BESTEKO NOTA
--------------------

Lizentziaturaren, ingeniartzaren, arkitekturaren, graduaren, ikasketen batez besteko nota	
---	--

Ohorezko matrikulen kreditu kopurua	
-------------------------------------	--

Batez besteko nota osotara:	
-----------------------------	--

C- ESKABIDEAREN DATUAK
------------------------

Modalitatea *		Arloa *	
---------------	--	---------	--

EZARPEN -ZENTROA

Entitatea *	
-------------	--

IFK	
-----	--

FAKULTATEA/ZENTROA	
--------------------	--

Departamentua	
---------------	--

Helbidea	
----------	--

PK *	
------	--

Herrialdea *	
--------------	--

<i>DOKTORETZA PROGRAMA</i>	
Unibertsitatea	
Doktoretza	
Herrialdea	

<i>DOKTORETZA TESIKO PROIEKTUA</i>	
Titulua*	
Sektore sozioekonomikoa*	

<i>TESIAREN ZUZENDARIA:</i>			
Abizenak eta izena*			
Emaila: *		Telefonoa	
Ezarpn-zentroan kontratatuta *	Bai Ez		
Baietz adierazi baduzu, hautatu ondorengoetako bat:			
<input type="checkbox"/> Funtzionarioa edo lan-kontratu finkoa			
<input type="checkbox"/> Lan-kontratu mugagabea			
<input type="checkbox"/> Iraupen jakin bateko kontratua, bekaduna edo bestelako kontratua			
Azken aukera hautatu baduzu, adierazi noiz amaitzen den kontratua			

<i>TESIAREN ZUZENDARIKIDEA</i>			
Abizenak eta izena			
Telefonoa		E-posta	
Ezarpn-zentroan kontratatua	<input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez		
Baietz adierazi baduzu, hautatu ondorengoetako bat :			
<input type="checkbox"/> Funtzionarioa edo lan-kontratu finkoa			
<input type="checkbox"/> Lan-kontratu mugagabea			
<input type="checkbox"/> Iraupen jakin bateko kontratua, bekaduna edo bestelako kontratua			
Azken aukera hautatu baduzu, adierazi noiz amaitzen den kontratua			

<i>ELKARRIZKETA</i>	
Hizkuntza *	<input type="checkbox"/> Gaztelania <input type="checkbox"/> Euskara
Elkarrizketa euskaraz egitea aukeratu baduzu, jakizu aldi berean itzuliko dela, eta interpretariak ez direla adituak zientzia-gaietan, aldi bereko itzulpenean baizik	

**D.- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA**

Eskatzaileak ADIERAZTEN DU:

1.-  BAI  EZ (adierazi dagokizuna)  
diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabideren bat eskatu eta lortu duela beste administrazio edo erakunde publikoren batetik.

BAIETZ erantzunez gero, eskabidearen edo eman izanaren kopia aurkeztu behar da.

2.-  BAI  EZ (adierazi dagokizuna)  
sartuta dagoela / sartuta egon dela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik bideratzeko dagoen edozein itzultze- edo zigor-prozedura batean, oraindik izapidetzen ari dena.

BAIETZ erantzunez gero, prozedurari hasiera emateko agiriaren kopia aurkeztu behar duzu.

3.-  BAI  EZ (adierazi dagokizuna)  
Badut/ Ez dut diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penalik, (ezta) horretarako legezko inolako debekurik (ere), sexua bereiztearren eragindakoak barne; betiere, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen amaierako seigarren xedapenean zehaztutakoarekin bat etorritik.

BAIETZ erantzunez gero, zehapenaren edo debekuaren kopia aurkeztu behar duzu.

4.- Konpromisoa hartzen dut Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Politika Zientifikoko Zuzendaritzari jakinarazteko diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzekin edo eskakizunekin lotutako edozein egoera aldatzen bada, edo xede bererako beste diru-laguntza, sarrera edo baliabide batzuk eskuratzen badut edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribaturengandik.

5.- Eskabide honetan agertzen diren datuak egiazkoak dira; hala ez bada, neure gain hartuko du datuen zehaztasun ezak dakarren erantzukizuna.

Izptua.:

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalen Fitxategi Publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorritik, deialdiko parte-hartzaileek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, "Bekadunei laguntzak" izeneko fitxategi batean sartuko dira (2010eko azaroaren 5eko EHAA), diru-laguntzen deialdi hau kudeatzeko eta deialdira biltzen direnei deialdiaren garapenaren berri emateko. Fitxategi honen organo arduraduna Zientzia Politikarako Zuzendaritza da. Aurka egin, sartu, zuzendu eta ezabatzeko eskubideak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Zientzia Politikarako Zuzendaritzan gauzatu ahal izango dira (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

## III. ERANSKINA

BEKA BERRITZEKO ESKABIDE ORRIA	ERREFERENTZIA	
	BARNE KODEA	
DOKTORETZA AURREKO PROGRAMA, DOKTORE EZ DIREN IKERTZAILEAK 2015-2016 URTEAN HOBETZEKO		

A.-ESKATZAILEAREN DATU PERTSONALAK
------------------------------------

Abizenak eta izena					
NAN/AIZ					
Helbidea		PK			
E-mail		Sakelako telefonoa		Telefonoa: finkoa	
Zein urtetan eman zen beka		Lehenengoz eman zeneko erreferentzia			
Modalitatea			Arloa		
Zuzendaria					
Kozuzendaria					

**B.- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA****Eskatzaileak ADIERAZTEN DU:**1.- 

diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabideren bat eskatu eta lortu duela beste administrazio edo erakunde publikoren batetik.

*BAIETZ erantzunez gero, eskabidearen edo eman izanaren kopia aurkeztu behar da.*

2.- 

sartuta dagoela / sartuta egon dela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik bideratzeko dagoen edozein itzultze- edo zigor-prozedura batean, oraindik izapidetzen ari dena.

*BAIETZ erantzunez gero, prozedurari hasiera emateko agiriaren kopia aurkeztu behar duzu.*

3.- 

Badut/ Ez dut diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penalik, (ezta horretarako legezko inolako debekurik (ere), sexua bereiztearren eragindakoak barne; betiere, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen amaierako seigarren xedapenean zehaztutakoarekin bat etorritik).

*BAIETZ erantzunez gero, zehapenaren edo debekuaren kopia aurkeztu behar duzu.*

4.- Konpromisoa hartzen dut Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Politika Zientifikoko Zuzendaritzari jakinarazteko diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzekin edo eskakizunekin lotutako edozein egoera aldatzen bada, edo xede bererako beste diru-laguntza, sarrera edo baliabide batzuk eskuratzen badut edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribaturengandik.

5.- Eskabide honetan agertzen diren datuak egiazkoak dira; hala ez bada, neure gain hartuko du datuen zehaztasun ezak dakarren erantzukizuna.

Izptua.: :

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalen Fitxategi Publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorritik, deialdiko parte-hartzaileek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, «Bekadunei laguntzak» izeneko fitxategi batean sartuko dira (2010eko azaroaren 5eko EHAA), diru-laguntzen deialdi hau kudeatzeko eta deialdira biltzen direnei deialdiaren garapenaren berri emateko. Fitxategi honen organo arduraduna Zientzia Politikarako Zuzendaritza da. Datuen aurka egin, datuetan sartu, datuak zuzendu eta ezabatzeko eskubideak Hezkuntza Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Zientzia Politikarako Zuzendaritzan gauzatu ahal izango dira (Donostia kalea, Vitoria-Gasteiz).

## IV. ERANSKINA

ESKABIDE ORRIA	ERREFERENTZIA	
	BARNE KODEA	
DOKTORETZA SARIA		

## A.- ESKATZAILEAREN DATU PERTSONALAK

Abizenak eta izena								
NAN/AIZ								
Errolda probintzia EAEn								
Helbidea						PK		
Email				Sakelako telefonoa			Telefonoa: finkoa	
Zein urtetan eman zen beka			Lehenengoz eman zeneko erreferentzia					
Modalitatea				Arloa				
Zuzendaria								
Kozuzendaria								
Noiz lortu duzu doktore titulua				Nazioarteko Doktoretza	<input type="checkbox"/>			

## EZARPEN ZENTROA

IFZ							
Izena							

**B.- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA**

Eskatzaileak ADIERAZTEN DU:

1.-

diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo bestelako baliabideren bat eskatu eta lortu duela beste administrazio edo erakunde publikoren batetik.

*BAIETZ erantzunez gero, eskabidearen edo eman izanaren kopia aurkeztu behar da.*

2.-

sartuta dagoela / sartuta egon dela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik bideratzeko dagoen edozein itzultze- edo zigor-prozedura batean, oraindik izapidetzen ari dena.

*BAIETZ erantzunez gero, prozedurari hasiera emateko agiriaren kopia aurkeztu behar duzu.*

3.-

Badut/ Ez dut diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratibo edo penalik, (ezta horretarako legezko inolako debekurik (ere), sexua bereiztearren eragindakoak barne; betiere, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen amaierako seigarren xedapenean zehaztutakoarekin bat etorritik.

*BAIETZ erantzunez gero, zehapenaren edo debekuaren kopia aurkeztu behar duzu.*

4.- Konpromisoa hartzen dut Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Politika Zientifikoko Zuzendaritzari jakinarazteko diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzekin edo eskakizunekin lotutako edozein egoera aldatzen bada, edo xede bererako beste diru-laguntza, sarrera edo baliabide batzuk eskuratzen badut edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribaturengandik.

5.- Eskabide honetan agertzen diren datuak egiazkoak dira; hala ez bada, neure gain hartuko du datuen zehaztasun ezak dakarren erantzukizuna.

Izptua.: :

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalen Fitxategi Publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorritik, deialdiko parte-hartzaileek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, «Bekadunei laguntzak» izeneko fitxategi batean sartuko dira (2010eko azaroaren 5eko EHAA), diru-laguntzen deialdi hau kudeatzeko eta deialdira biltzen direnei deialdiaren garapenaren berri emateko. Fitxategi honen organo arduraduna Zientzia Politikarako Zuzendaritza da. Datuen aurka egin, datuetan sartu, datuak zuzendu eta ezabatzeko eskubideak Hezkuntza Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Zientzia Politikarako Zuzendaritzan gauzatu ahal izango dira (Donostia kalea, Vitoria-Gasteiz).